



ARTZINIEGAKO UDALA

AKTA

Saioa: Ohiko osoko bilkura
Eguna: 2019ko martxoak 7
Ordua: 19:10 – 20:45
Lekua: Udaletxeko Bilkura Gela

Bertaratuak:

Iñigo Gomez Unzueta
Inmaculada Vivanco Retes
Maria Lorente Burgos
Miren Izaskun Perez Barragan
Joseba Mirena Vivanco Retes
Arkaitz San Jose Martinez
Unai Gotxi Kastrexana
Alazne Lafragua Ureta
Joseba Elejalde Ribacoba

M^a Ascension Hormazabal Meabe, Idazkari eta Kontu-hartzailea.

Saioa hasita eta lehendakariak publikotzat jo ostean, 19:10etan, gai-zerrendako puntuak ezagutarazi dira, eta akordio hauek hartu dira:

1.- 2018ko irailaren 27an, azaroaren 8an, abenduaren 26an eta otsailaren 7an egindako saioetako Aktak Onartzea.

Alkatea: Zer edo zer esan nahi duzue?

Alazne Lafragua Ureta: bai, bi kontu. Irailaren 26koa ez dago, argi 27 ala 29 den. Aktan 29 adierazten da, eta deialdian 27, orduan ez dakit 27 ala 29 den. Eta gero beste kontu bat, otsailaren 7koan ni ez nintzen izan eta egon izan banintz bezala agertzen da, eta ondoren ez nintzela izan adierazten da. Bertaratuaren artean ateratzen naiz eta ondoren bertaratzen ez direnen artean ateratzen naiz.

Alkatea: Nik irailaren 27ko saioko pare bat kontu adierazi nahi dizkizuet. 21. orrialdean aipatzen denean “Alkatea: horretara itzuliko al gara” galdera ikurrarekin da. Galdera ikurrak falta dira. Eta ondoren 28. orrialdean sarritan aipatzen da AEME, eta AEME da, ez AM.

Unai Gotxi Kastrexana: bertako 22. orrialdean Joseba Elejalde aipatzen da eta Asceni erantzunik ez duen galdera bat egiten dio. Horrenbestez pentsatzen dut hemen Asceni erantzuna faltako dela, batez ere Josebaren botoan eragiten duelako.

Joseba Elejalde Ribacoba: bai, jakina erantzuna falta da.

Ascension Hormazabal Meabe: Eta ez du ezer adierazten?

Unai Gotxi Kastrexana: ez da ezer adierazten.

Joseba Elejalde Ribacoba: ez du ezer adierazten.

Unai Gotxi Kastrexana: eta gero, besterik gabe, Arkaitzen agerraldian, azpitik hasita hirugarrenean arte ipintzen du Artea ipini beharrean, baina tira, auto-zuzentzailea.

2018ko irailaren 27ko akta bozkatu da.

Kontran:
Batere ez.



Abstentzia:

Batere ez.

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, Maria Lorente Burgos eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ alderditik(4); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez, Unai Gotxi Kastrexana eta Alazne Lafragua Ureta, EHBildu alderditik (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Onartuta geratu da.

2018ko azaroaren 8ko akta bozkatu da.

Kontran:

Batere ez.

Abstentzia:

Maria Lorente Burgos EAJ alderditik (1) eta Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ alderditik(3); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez, Unai Gotxi Kastrexana eta Alazne Lafragua Ureta, EHBildu alderditik (4);

Onartuta geratu da.

2018ko abenduaren 26ko akta bozkatu da.

Kontran:

Batere ez.

Abstentzia:

Batere ez.

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, Maria Lorente Burgos eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ alderditik(4); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez, Unai Gotxi Kastrexana eta Alazne Lafragua Ureta, EHBildu alderditik (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Onartuta geratu da.

2019ko otsailaren 7ko akta bozkatu da.

Kontran:

Batere ez.

Abstentzia:

Alazne Lafragua Ureta, EHBildu alderditik (1);

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, Maria Lorente Burgos eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ alderditik (4); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana, EH Bildu alderditik (3); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Onartuta geratu da.

2.- 2019. urterako baso-ustiapeneko plana onartzea.

Alkateak irizpena irakurri du.

“2019ko OTSAILAREN 27an EGINDAKO SAIOAN LURRALDEKO INFORMAZIO BATZORDEAK EMANDAKO IRIZPENA.



BASO-USTIAPENEN PLANA 2019

Lurralde Batzordearen aldeko txostenaren arabera eta zonaldeko Basozainaren argibideei jarraiki, adierazitako ekitaldi ekonomikorako Udal honetako Baso Ustiapenen Plana igortzen da, eskatuz, antolatzea badagokio ere, onar dadila, berehala gauzatzeko xedez:

ZURGAI APROBETXAMENDUAK KATALOGATUTAKO MENDIETAN

Zurgai aprobetxamenduak

Kontsortzioak auzotarrekin:

1. baso-soilgunea *Pinus radiata* 0,59ha (Vicente Aguirre Cereceda Palacio barrutia)
- Pinus radiata* 0,46ha baso-soilketa (Jose Ramon Sanchoyerto San Juan, Solcerro barrutia)

Kontsortzioak AFArekin

1. baso-soilgunea *Pinuspinaster* 0,59ha (Las Rozas barrutia)
2. baso-soilgunea *Pinusnigra*, *Pinus radiata* eta *Pinuspinaster* 2,3ha (Solcerro barrutia)
1. baso-soilgunea *Pinus radiata* 22,36ha (Acebal barrutia, hegoaldeko mazela)
2. baso-soilgunea *Pinus radiata* 28,48ha (Sendolla barrutia)
1. baso-soilgunea *Pinus radiata*, *Pinuspinaster*, *Pinusnigra* 12,22ha (La Horquilla barrutia)

Ayuntamiento de Artziniega

- Pinus radiata* 0,3ha baso-soilketa (Carrascal barrutia)
0,5 Ha *pinus radiata* baso-soilketa (Solcerro barrutia)
1. baso-soilgunea *Pinu berrien Pinus radiata* birpopulatze hostotsuan (Bilarra barrutia) 30,5ha

EGURKETAK 2019. URTEAN

8. EPM

10 egur-aprobetxamendu sorta, sorta bakoitzeko 2t zur.

10. EPM

2 egur-aprobetxamendu sorta, sorta bakoitzeko 2t zur.

Ezohiko 3 aprobetxamendu: 1. baso-silgunea *Quercus rubra*, ezohiko aprobetxamendu bakoitzeko 3,5t zur (Erabiltzeko egur-aprobetxamendurako eskubiderik ez duten Artziniegako erdiguneko biztanleentzat)

ESKAEREN ZERRENDA

IZENA	HELBIDEA	TELEFONOA	OHARRAK
JOSE MANUEL FONTAN	ERRETA TUTERA	944441135/685754395	ORDAINDUA
ALVARO CANIVE	SANTA KOLOMA	945396474	ORDAINDUA
MARIA LUISA DE LAS REIGADAS	CAMPIJO	945396397	ORDAINDUA
GAIZKA IGLESIAS DE LA TORRE	ERRETA TUTERA	690163350	ORDAINDUA
ENCINA TERREROS MARUGAY	GORDELIZ	945396469	ORDAINDUA
ANTONIO VILLOTA VILLODAS	ERRETA TUTERA	686.065.900	ORDAINDUA BANKUA



SOLEDAD SANTA COLOMA	ERRETA TUTERA	944441135	ORDAINDUA
ERNESTO CIRION SAN ROMAN	MENDIETA	665735793	ORDAINDUA BANKUA
MARCO ANTONIO SABATER	SANTA KOLOMA	655693854	ORDAINDUA
ALEJANDRO BARCENA AGUIRRE	SANTA KOLOMA	608871811	ORDAINDUA
IZASKUN BARCENA	SANTA KOLOMA	608871811	ORDAINDUA
IBON VILLOTA EGUIA	ERRETA TUTERA	686.065.900	ORDAINDUA BANKUA
ESTEBAN GARCIA DIAZ	SAN ANTONIO	619.95.82.99	ORDAINDUA BANKUA 2019-01-15".

APROBETXAMENDU BEREZIAK 2019

IZENA	HELBIDEA	TELEFONOA	OHARRAK
ANDONI RUIZ MEDIAVILLA	ARTZINIEGA	655747718	ORDAINDUA
CARMELO DE MENA	ARTZINIEGA	653722651	ORDAINDUA
PEDRO ASTARLOA LLANTADA	ARTZINIEGA	688800935	ORDAINDUA

LARREEN USTIAPENA

2018ko azaroaren 29an (1238 zenbakidun irteera) abeltzainen zerrenda igorri zitzaion Arabako Foru Aldundiari, Artziniegako mendi publikoetako larreetan ibiltzen den azientaren deklarazioarekin Mota bakoitzerako apuntatutako abelburu kopurua:

24 hilabete baino gehiagoko behi-azienda: 145.

24 hilabete arterako behi-azienda: 11.

Ardi-azienda: 54

Zaldi-azienda: 61

Oharrak:

EZ DAGO BAIMENDUTA AHUNTZAK LARREAN IBILTZEA ARTZINIEGAKO ERABILERA PUBLIKOKO MENDIETAN

EZ DA LARREAN IBILTZEA BAIMENTZEN ERABILERA PUBLIKOKO MENDIETAN ABENDUAREN 16TIK MARTXOAREN 31RA

Egutegi honetan 70 abelburu salbuesten dira 10. EPM eremuan 1056/15 espedientearen arabera, bertan ezartzen direlarik baldintzatzaileak.

Era berean, 8. EPM salbuestea eskatzen da 10. EPM eremuaren baldintza berdinetan, mendiaren inguralde osoa behar bezala perimetratuta geratzen denean, aurrean egikarrituko den larreen itxitura batekin.

OKUPAZIO EZTI-EMAILEAK



Atxomin izenekoa, 250m2koa

ANTENEN OKUPAZIOA ERABILERA PUBLIKOKO MENDIETAN

MOVISTAR
VODAFONE

APROBETXAMENDU ZINEGETIKOA

Artziniegako VI 10.065 Ehiza Eremua, 2015eko urriaren 13ko 241 Foru Aginduz esleitua.

LUBERRIAK BERRIZTATZEA

8. EPM Peñalba

Urrayo:

Luberriz-zenbakia: 8

Gordeliz-San Antonio bidearen iparraldeko zatia herri-larre modura eguneratzea eskatzen da
Bidearen hegoaldeko zatia luberriz gisa berriztatzea eskatzen da

Barratxi

Luberriz-zenbakia: 16

Las Callejas (zonalde hau El Ribero izenarekin izendatzen da modu okerrean)

Luberriz-zenbakia: 11

Santa Koloma

Luberriz-zenbakia: 12

Las Caserías (hegoaldeko zonaldea, Txomin izendatua)

Luberriz-zenbakia: 15

6. EPM Otsati:

Basozainaren luberriz / Aterpea

Luberriz-zenbakia: 24

Sofuente eta Rebollar

Luberriz-zenbakia: 18

7. EPM Ezquebarro

La Viña

Luberriz-zenbakia: 10

Artea (Mendikatea)

Luberriz-zenbakia: 1

5. EPM Castillejos

San Roman La Lobera

Luberriz-zenbakia: 19

Berrones

Luberriz-zenbakia: 22



10. EPM Urtabe El Acebal

Sandoya

Luberri-zenbakia: 2

Luberri izateari utziko diotenak:

Las Canteras (Campijo) luberriaren mendebaldeko zonaldea landatu egingo da, beraz, luberri izateari utziko dio.

Udalak baimendutako luberrien zerrenda.

Luberrien muga-eguna 2019ko UZTAILAK 13

Izena	Dokumentazioa	Errolda	Adina	Partzelak
Ignacio Mendieta Ramila	Abeltzaintza eta traktoreen ziurtagiria	bai	60	Pol4-533/orain mendi diren lursail zatiak.
M ^a Jose Orueta	Nekazaritza ustiapenerako txartela	bai	51	Pol7- 35 eta 446-f
M ^a Luisa Reigadas	Nekazaritza ustiapenerako txartela. Azienda ziurtagiria (AFA)	bai	77	Pol 2- 483
M ^a Encina Terreros	Nekazaritza Ustiapenerako Txartela eta traktorea	bai	46	Pol 6- 60 (zattia)
Raul Virizueta Aguirre	Nekazaritza Ustiapenerako Txartela eta traktorea	Bai	53	Pol3- 288-216-203-185-187. Pol4-106
Inmaculada Yarritu Virizueta	Nekazaritza Ustiapenerako Txartela eta traktoreak	Bai	48	Pol7-139-140A-446A zattia-50 Pol6-8
Ana Isabel Santamaria	Nekazaritza Ustiapenerako Txartela eta traktorea	Bai	54	Pol6- 125 ^a -b-137(zattia)-138A-B-(zattia)184-48-49-134 Pol7-45
Eulalia Angulo	Nekazaritza Ustiapenerako Txartela eta traktoreak	Bai	65	Pol6-237B-C-13-150
Montserrat Sanz	Nekazaritza Ustiapenerako Txartela eta traktoreak	Bai	54	Pol4-657(zattia). 33. lursaila, orain mendia
Alicia Canive	Nekazaritza Ustiapenerako Txartela eta traktorea	Bai	77	Pol4-33, (zattia) orain mendia da.
Miguel Castelo	Nekazaritza Ustiapenerako Txartela eta traktorea	Bai	72	Pol4 521-524-660 b eta d.
Patxi Cirion Ugarte	Nekazaritza Ustiapenerako Txartela.	Bai	36	Pol6-84. Pol5-179 (zattia). Pol4-424
Ernesto Cirion San Roman	Nekazaritza Ustiapenerako Txartela eta Traktorea.	Bai	50	Pol2-498(70.000m2 mendia). Pol3-292(33.400m2 mendia)
Piedad Fernandez	Nekazaritza ustiapenerako txartela Miguel Polancosen izenean	bai	71	Pol2-498(zattia) 499(zattia)
Rosa Maria Humaran	Nekazaritza Ustiapenerako alta Txartela	Bai	73	Pol3-292 (mendirako)
M ^a Begoña Ibarra	Nekazaritza Ustiapenerako alta Txartela	Bai	62	Pol2-499b)-498-a)-483 a)

Alkatea: Zer edo zer esan nahi duzue?



Arkaitz San Jose Martinez: bai. Apur bat hemen gauza pila bat onartzen direnez, batzordean planteatu zenbait kontu adieraztea, izan ere, gainera lurralde batzordearen irizpen bat da, jendeak apur bat testuinguruan ipin dezan. Azken batean basoen ustiapen horretan Udalak badu zerikusirik, eta bere garaian onartu genuen basoa kudeatzeko ikerketa bat, non soiltzeen egokitasuna, noiz egin eta ahalik eta irizpide iraunkorrenekin egitea aipatzen baitzen, ulertz bazirela batez ere koniferotan mantentzen ziren aprobetxamenduak horien ustiapena udalerrirako interesgarria zelako, baina hori, kontu horietan Udalak duela eskumena eskusiboki. Baina jakina, ez da planean espezifikoa, baizik eta joan den egunean eremu pribatuan egiten denari buruzko kezka helarazi zen, eta beno, eztabaida zera izan zen, ea azkenean, izan ere, lurraldean orotariko jabetunak daude tartekatuta, mendi publikoak daude eta mendi pribatuak daude, eta azken batean aurrera egitea mendi publikoen babes eta kontserbazioari so eta ondoren titulartasun pribatuko lurretan beste zentzu batean aurrera egitea, bada, Zer-nolako gaitasuna du Udalak eragiteko? Eta batez ere mehatxuaren kontua atera zen, eta gainera gaur egun pinua nola dagoen ikusita, eukaliptoen plantazioak daudela, eta zer egin daitekeen zentzu horretan. Izan ere, azken batean, espezieak ez dira ekartzen, lurraldea zedarrituta dago, baina azken batean zuk espazio batean landatze mota bat egitea, nahiz eta espazio horretan izan, inguruan ere badu eraginik horrek modu ukaezinean. Eta, beno, apur bat testuinguruan ipintzeko, izan ere, nik uste dut bat gatozela, ados gaude, mendi publikoan ongi jarduten ari gara gutxi gorabehera, baina mendi pribatuan egiten diren esku-hartzeak honetatik guztitik aldentzen dira apur bat.

Alkatea: izan genuen bilkuran adostasun batera iritsi ginen, mendi publikoan ez zela eukalipto ipiniko. Beste kontu bat da lur partikularretako jabetunek duten asmoa eta guk eremu pribatuan eukalipto ez ipintzeko daukagun debekatzeko ahalmena.

Besterik? Nik gauza bat. Nik uste dut luberrien zerrenda bat falta dela, Piedad Fernandezena falta da. Hasiera batean ukatu egin zitzaion, ondoren berraztertzeko errekurtsioa ipini zuen, errekurtsioa onartu zitzaion eta eman egin zitzaion.

Bozkatu egin da:

Kontran:

Batere ez.

Abstentzioa:

Batere ez.

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, Maria Lorente Burgos eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ alderditik(4); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez, Unai Gotxi Kastrexana eta Alazne Lafragua Ureta, EHBildu alderditik (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Onartuta geratu da.

3.- Hirua elkartearekin Hitzarmena onartzea 2019rako.

Alkatea: beno, ez dago erregistratuta baina informazio batzordean bagenuen kontu hau. 2018ko berdina zen.

Unai Gotxi Kastrexana: Baina bozkatu daiteke erregistratuta egon ez arren?

Alkatea: informazio batzordean zegoen. Informazio batzordean eman zen irizpena.

Unai Gotxi Kastrexana: Asceni galdetzen ari nintzaion.

Ascension Hormazabal Meabe: nik uste dut dokumentuak erregistratuta egon behar direla. Beste zati batekin eragina izango dituen dokumentu bat da, ez da berez barnekoa.

Alkatea: zuk agintzen duzu.

Ascension Hormazabal Meabe: baietz, ikusi duzuela, baina erregistratu egin behar dela.

Alkatea: Bozka dezakegu ala ez?

Ascension Hormazabal Meabe: Erregistratuta dago ala ez? Nik ez dut ordea.

Alkatea: ez, ez dago erregistratuta.



Ascension Hormazabal Meabe: beno, bada bihar erregistratuko dut, baina...

Inmaculada Vivanco Retes: Batzordean zegoen, ezta?

Joseba Elejalde Ribacoba: batzordean aipatu zen erregistratzearen kontua jadanik. Nik uste dut hiruzpalau egun izan ditugula sarrera emateko. Osoko bilkurara iristea eta duela lau egun edo astebete bezala egoteak ere ez du justifikazio handirik, batzordean jadanik eztabaidatu zenean eta aipatu zenean sarrera-zigilurik ez zuela, horrenbestez, azken batean, berdinetan gaude. Osoko bilkura honen eta batzordeetako dinamika eta lana dena atzeratzea berriro.

Alkatea: ben, testua ezagutzen duzue, ezta?

Unai Gotxi Kastrexana: bai, bai, ez dago arazorik. Batzordean esan genuen onartu egingo genuela. Kontua da ez dagoela erregistratuta.

Inmaculada Vivanco Retes: berez erregistratuta zegoen gainerakoarekin batera zetorren dokumentazio bat zela uste nuen.

Ascension Hormazabal Meabe: nik akordioa gero egin nuen eta dokumentua erregistratu gabe nuen nik.

Arkaitz San Jose Martinez: Baina zein eragin du bozkatzeak ez badago...?

Ascension Hormazabal Meabe: beno, erregistratu egingo dugu, baina dokumentuak erregistratuta egon behar du nahitaez.

Arkaitz San Jose Martinez: Baina prozedura horrela egin daiteke? Bozkatu eta ondoren erregistratu?

Ascension Hormazabal Meabe: dokumentu bera da. Erregistroa emango diogu, baina...

Arkaitz San Jose Martinez: nik ulertzen dut, osoko bilkuraren eskumenekoa da eta azken batean hilabete atzeratzea izango litzateke. Edo ezohiko bat egitea.

Joseba Elejalde Ribacoba: baina ez dugu legez kanpoko ezer egiten, ezta Ascen? Ez dadin gertatu guztiok gaikuntzarik gabe uztea orain, bederatzio.

Alkatea: ez dago baden doktrinarik dokumentuak erregistratzeko betebeharrari buruz. Ez dut uste epairik dagoenik.

Ascension Hormazabal Meabe: beno, bada begiratuko dut epaia, baina...

Alkatea: konpon daitekeela esanahi dut, Irizpena irakurri du.

“2019ko OTSAILAREN 27an EGINDAKO SAIOAN LURRALDEKO INFORMAZIO BATZORDEAK EMANDAKO IRIZPENA.

IKUSIRIK Artziniegako Udalaren eta HIRUA elkartearen arteko lankidetzaren hitzarmena, Artziniegako Udalerriko katuen koloniak kontrolatu eta egoera hobetzeko.

KONTUAN HARTUZ hitzarmen horretan Udalak gehienez urtean bi mila euroko diru-laguntza emateko konpromisoa hartzen duela.

KONTUAN HARTUZ Hitzarmen horren indarraldia 2019ko abenduaren 31n amaituko dela..

KONTUAN IZANIK diru-laguntzaren xedea KATUEN KOLONIAK KONTROLATU ETA HOBETZEA dela, non katuak harrapatu, antzutu eta askatzea, kolonien saneamendu higieniko eta sanitarioa, eta kolonien bizilekuak egokitzea barneratzen den.

KONTUAN IZANIK badela aurrekontuan kontsignazioa, 311.481.001 aplikatuz, izaera nominatiboaz. Diru-laguntzaren justifikazioa aurrekontua egikaritzeko Arauaren 33. artikuluan eta hurrengoetan eta Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorreko 29. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren baitan geratuko dela.

Diru-laguntzen Lege Orokorreko 22.2. artikulua arabera, diru-laguntzak zuzenean eman daitezke, Aurrekontuetan modu nominatiboan aurreikusitakoak, horretarako sinatutako Hitzarmenetan jasotako baldintzetan, non diru-laguntza horretan aplikagarri den araudia arautzen baita.



Horregatik guztiagatik, Udalbatzari proposatzen zaio, bere eskuduntzen arabera, har dezala hurrengo **AKORDIOA**:

LEHENA.- Artziniegako Udalaren eta HIRUA elkartearen arteko Lankidetzaren Hitzarmena onartzea, KATUEN KOLONIAK KONTROLATU ETA HOBETZEKO jarduerak finantzatzeko helburua duena.

**"ARTZINIEGAKO UDALAREN ETA HIRUA ELKARTEAREN
ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA.**

Artziniegan, 2019ko.....ren.....(e)an

ELKARTUAK

Alde batetik, Iñigo Gomez Unzueta, Artziniegako Udaleko Alkatea, 30.645.522-T NAN zenbakiaren jabea, Artziniegako Udaleko Idazkaria den Ascension Hormazabal Meaberen laguntzarekin, egintza honen fede ematen duena.

Beste alde batetik, Rosario Revuelta Ruiz, 14.252.688-W NAN zenbakiaren jabea, Hirua Elkartearen presidenteorde modura.

PARTE HARTZEN DUTE

Lehenak Artziniegako Udaleko Alkate modura, tokiko erakunde horren izenean eta hura ordezkatzuz, Toki Araubidearen Oinarrizko Arauzaren 2ko 7/1985 Legearen arabera horretarako gaitua eta eskumenaren jabe izanik.

Bigarrenak, Hirua elkartearen izenean eta hura ordezkatzuz, &01533215 IFK zenbakiarekin, bere izaera eta ordezkaritza atxikitzen den ziurtagiri bidez egiaztatzen duenak.

Bi aldeek ahalmen juridikoa eta jarduteko gaitasun osoa onartzen diote elkarri lankidetzaren hitzarmen hau eman eta betetzeko, eta horri dagokionez

AZALTZEN DUTE

I. Hirua Elkartearen irabazi asmorik gabeko elkarte bat dela, besteak beste, Artziniegako udalerriko katuen kolonien egoera kontrolatu eta hobetzea duena xede. Horretarako, aplikagarri den lege esparrua betez, hurrengo jarduerak garatzen dituelarik oro har:

- ✓ Katuak harrapatu, antzutu eta askatzea.
- ✓ Kolonien saneamendu higieniko eta sanitarioa.
- ✓ Kolonien bizilekuak egokitzea.
- ✓ Kolonien ongizaterako oinarrizko premiak ahalbidetzea.

II. Artziniegako Udalak, Hirua Elkartearen udalerriri honetan burutzen duen gizarte-lanari erreparatuz, jarduera hau babestea erabaki duela, besteak beste, Hitzarmen honen bidez, katuen herriko Koloniak Kontrolatu eta Antzutzeko Urteko Plana garatzeko emango zaion urteko diru-laguntza arautzekoa. Plan horrek berekin ekarriko du hurrengo lanketak egitea:

- URTEKO PLANAREN PLANGINTZA.

Udalerraren plano batekin Hirua elkarteak, hasiera batean, geografikoki lokalizatuko ditu kolonia guztiak, populazioa zona edo auzoka azpibanatuz. Era berean, kolonia bakoitzeko katu kopuruaren gutxi gorabeherako kalkulu bat egingo du, eta horien biziraupen-egoera balioetsiko du.

- ANIMALIAK HARTU, ESKU-HARTU ETA GORDETZEAK.



Hirua Elkarteak, erabakitzen duen albaitaritza Zentroen lankidetzarekin, katuak nola hartu planifikatu eta garatuko du ondoren aipatu kliniketara eramateko. Behin kliniketan, kolegiatutako albaitariek horien osasunaren inguruko azterketa orokorra egingo dute, hala badagokio, antzutzeta eta identifikazioa burutuz, belarrarian ebaki bat egingez ondoren animalia ezagutu ahal izateko.

Animaliak hartu eta garraiatzeko lanak egiteaz Hirua elkarteko boluntarioak arduratuko dira, albaitaritza zentro kolaboratzaileen koordinazioarekin. Horretarako, material hauek erabiliko dituzte, besteak beste: tranpa-kaiolak, kaiolatxoak, linternak, eskularruak, arropa egokia, botikina, prismaoak, amu modura erabiltzeko jakiak, mantatxoak eta garraiatzeko ibilgailua. Katuen mantenu eta tratamendua instalazio egokietan egingo da eta albaitaritza zentro kolaboratzaileen begiradapean. Sekula ez da behar baino denbora gutxiago igaroko, animalia osasun egoera ziurtatzeko. Gaixorik egon arren beharrezkoak diren tratamenduekin egoera hori gaindi dezaketen animaliak ez dira, inolaz ere, sakrifikatuko. Gainerako animaliak ebakuntza osteko egonaldia eta errekupeazio ahalik eta azkarrena ahalbidetzeko teknikekin garbitu, tratatu eta antzutuko dira.

Ebakuntzaren ostean hartu ezin diren animaliei belarrarian marka bat egingo zaie ebakuntzan zehar eta anestesia aprobetxatuz. Animalia horiei guztiei fitxa bat irekiko zaie identifikazio-zenbakia, izena eta zein koloniatan kokatuko den adierazita.

Kirurgiaren ondoren konplikaziorik ez baldin badago, harreraren emandako katuak salbuetsita, katuak lehenbaiterik askatu behar dira harrapatutako lekuan.

- KOLONIAK EGOKITU ETA GAINBEGIRATZEA

Beharrezkoa balitz, kolonia bizi den lekua egokitu egingo da. Tresnak, jaki arrastoak eta animaliek sortutako beste edozein gai edo hondakin edo kolonia mantentzearen ondorioz pertsonak sortutako edozein hondar baztertu egingo dira. Beharrezkoa balitz, garbiketa amaitzeko higiene egoki baterako premiekin bat datozen produktu fitosanitarioak baliatuz tratamendu bat egingo da.

Edatekoak, jatekoak eta aterpe egokiak (etxolak, toldoak) instalatzeko zonalde bat (alde zentralerik inplikaturako komunitateekin eta Udalarekin adostuta) bideratuko da animaliek atseden hartu eta eguraldi txarra denean babes daitezela.

- INFORMAZIOA ETA PLANAREN DIBULGAZIOA.

Hirua elkarteak informazio, sentsibilizazio eta dibulgazioa burutuko du hitzaldi edota informazio-mahaien bidez. Horietan hainbat material erabiliko ditu lagungarri gisa, bereziki, inprimakiak, informazio-oharrak eta kartelak, herritarrei une bakoitzean egiteko lanen berri emate aldera. Bereziki azpimarratuko da animaliak dituzten pertsonen zuzendutako komunikazioa eta sentsibilizazioa, animalien elikadurarekin, beste animalia batzuen presentziaren aurreko portaerarekin edo ebatzi beharreko beste edozein gorabeheraren aurrean nola jardun jakinarazteko. Hitzarmen honen barnean sortutako material guztietan hitzarmen honetan jasotzen den hitzarmenaren erreferentzia gaineratu beharko da. Era berean, Hirua elkarteak sortutako material oso, hedatu aurretik, Udaleko zerbitzu teknikoaren aurrean aurkeztu beharko da.

III. Aplikagarri den legedia zehatz-mehatz betez, eta Toki Erakundeei lankidetzeta-hitzarmenak sinatzeko duten ahalmenari erreparatuz, bi aldeek lankidetzeta-hitzarmen hau formalizatzen dute, horretarako betez hurrengo

HIZPAKETAK



LEHENA.- Artziniegako Udalaren aldetik Hitzarmen honen xedea Hirua elkarteak urtean zehar, KATUEN KOLONIAK KONTROLATU ETA HOBETZEKO jarduerarekin lotuta, garatuko dituen ekimen eta jarduera ezberdinak sustatzen laguntzea da. Horretatik salbuetsita geratzen da partikularren katuak eta antzutzeari dagokionez animalia horiek dituztenen erantzukizunik ezaren ondorioz sortzen diren kumaldiak kudeatu eta hartzea.

BIGARRENA.- Artziniegako Udalak garatzeko sustapen-jardunaren edukia aurreko atalean deskribatutako jarduerak, Hirua elkarteak burutuak, ondorio dituzten gastuen diru-laguntzetan gauzatzen da.

HIRUGARRENA.- Administrazio honek alde zuzenetik aipatutako jarduerak sustatzeko emango duen diru-laguntza horiek garatzearen ondorioz sortzen diren gastuak ordaintzera bideratuko da.

Hitzarmen honekin lotutako udal diru-laguntza BI MILA EUROKOA (2.000€) izango da gehienez URTEAN.

LAUGARRENA.- Udalaren aldetiko urteko diru-laguntzaren zenbatekoa (gehienez 2.000€) JUSTIFIKATZEKO zenbateko horri dagokion dokumentazioa aurkeztuko da:

a) Diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko jasotako diru-laguntza guztien deklarazioa, erakunde publiko nahiz pribatuen eskutik jasoak.

b) Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketa guztiak egunean izatearen ziurtagiria.

c) Jarduerarekin lotutako dokumentazio hau:

a. Diruz lagundutako ekitaldiaren Gastu eta Diru-sarreraren Balantzea.

b. Diruz lagundutako ekitaldiaren Jardueren Memoria (egindako jarduera bakoitzaren ebaluazio-fitxa eta egin izanaren zinpeko adierazpena). Gainera, dauden katu koloniak, horien bilakaera, animalien gutxi gorabeherako eroldaren eta horren bilakaera, burututako antzutze guztien kopurua eta hartutako neurrien eraginkortasunaren balioespena deskribatzeko laburpen bat gaineratuko da.

c. Amaitutako urtearen memoria ekonomikoa (jardueren gastua + funtzionamenduen gastua), gastu eta diru-sarrerak adierazita, dagozkion fakturak eta Artziniegako Udalak diruz lagundutako jardueren ordainagiriak aurkeztuz.

d. Katuak antzutu eta higienizatze lanak garatzen dituzten albaitaritzako zentroek igorritako fakturak. Faktura horietan xehetasunaz jaso beharko dira egindako lanak. Eta hitzarmen honekin diruz lagundutako jarduerekin lotutako gainerako fakturak.

Lehendabiziko hiszpaketa islatutako baldintzak urratuz gero ez da diru-laguntza emango eta alde zuzenetik ordaindutako kopuruak itzultzeko prozedura bat abiatuko da.

Hitzarmen honetako laugarren hiszpaketa eskatutako justifikazioa aurkezten ez bada 2019ko urtarrilaren 31rako ez da diru-laguntza emango eta alde zuzenetik ordaindutako kopuruak itzultzeko prozedura bat abiatuko da.

Diru-laguntza hau bateragarria izango da Udalak urtean zehar deitzen dituen gainerako diru-laguntzekin. Haatik, elkarteak ezingo du gehiegizko finantzazioa eskuratu hitzarmen honetan deskribatutako jardueretako bakar batean ere.

BOSGARRENA.- Diruz laguntzeko jarduerak gauzatzeko epea diruz lagundutako urteko denborazko muga arabera izango da, 2019ko urtarrilaren 1etik 2019ko abenduaren 31ra.

SEIGARRENA.- Honakoa izango da diru-laguntza ordaintzeko modua: Artziniegako Udalak gehienez hiszpatutako diru-laguntzaren % 90 ordainduko da behin hitzarmena sinatu



ostean. Gainerako % 10a Hitzarmen honetako LAUGARREN klausulan islatutako dokumentazioa aurkeztu ostean.

Artziniegako Udalak edozein unetan egokitzat jotzen duen informazioa eskatu ahalko du.

ZAZPIGARRENA.- Hirua elkarteak egiten duen publizitate orotan Artziniegako Udalaren lankidetzaz aipatu beharko du.

ZORTZIGARRENA.- Hirua elkarteak Hitzarmen honetan bereganatzen dituen betebeharrak urratzen baldin baditu, diru-laguntzen indarreko araudian erantzukizun eta zehapenei dagokienez aurreikusten den araubidea aplikatuko da.

Eta adostutakoarekin bat etorri aldeek lankidetzaz-hitzarmen honen bi aleak sinatzen dituzte, zuzenketa, zirriborro edo zuzenkizunik gabe, dokumentu hau osatzen duten bost folioetako bakoitzean, hura betetzeko konpromisoa hartzen dutelarik goiburuan adierazten den leku eta egunean”.

BIGARRENA.- Alkatezari eskumena ematea akordio hau gauzatzeko beharrezkoa den dokumentazio oro sina dezan”.

Alkatea: Zer edo zer esan nahi duzue?

Bozkatu egin da:

Kontran:

Batere ez.

Abstentzioa:

Maria Lorente Burgos, EAJ-PNV alderdikoa (1);

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ alderditik(3); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez, Unai Gotxi Kastrexana eta Alazne Lafragua Ureta, EHBildu alderditik (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Onartuta geratu da.

4.- Luberrien titulartasun-aldaketak eta bajak.

Alkatea: Irizpena irakurri du.

“2019ko OTSAILAREN 27an EGINDAKO SAIOAN LURRALDEKO INFORMAZIO BATZORDEAK EMANDAKO IRIZPENA.

Ikusirik 2014ko uztailaren 14an Udalbatzak onartutako luberrien zerrenda, zeinaren aprobetxamendu-epea 2019ko uztailaren 13an amaituko baita.

KONTUAN IZANIK, 2015eko uztailaren 9an Gonzalo Gomez Otxoak eskatutako luberriari uko egin ziola, 2018ko maiatzaren 9an M^a Luisa Arenaza Campok bere luberriak bajan ematea eskatu zuela eta 2019ko otsailaren 21ean Eusebia Cerecedak esleitutako zituenei uko egin ziela.

Izena	Dokumentazioa	Errolda	Adina	Partzelak
Gonzalo Gomez Otxoa		Bai	41	Pol4- 660 (2.462 metro.)



M ^a Luisa Arenaza	Nekazaritza Ustiapenerako Txartela	Bai	60	Pol 2 494 Pol2-486 0,244 Hektarea Pol2-486 0,2984 Hektarea
Eusebia Cereceda	Nekazaritza Ustiapenerako Txartela eta traktorea	Bai	88	Pol6-237)51-139 Pol7-169

KONTUAN IZANIK 2019ko otsailaren 12an Ana Isabel Santamariak luberrien titulartasuna aldatzeko eskatu zuela, alde zurretik Ander Ribacobari esleituak, bere izenean abeltzaintzako ustiapen bereko titular izateagatik.

Izena	Dokumentazioa	Errolda	Adina	Partzelak
Ander Ribacoba	Nekazaritza Ustiapenerako Txartela eta traktorea	Bai	21	Pol6- 125-b-137(zatia)- 138A-B-(zatia)184-48-49-134 Pol7-45

2019ko otsailaren 27an egindako saioan Lurraldearen Informazio Batzordeak Udaltzari proposatzen dio har dezala hurrengo **AKORDIOA**:

LEHENA.- Ander Ribacobari esleitutako luberrien titulartasun-aldaketa baimentzea Ana Isabel Santamariaren alde.

Izena	Dokumentazioa	Errolda	Adina	Partzelak
Ander Ribacoba	Nekazaritza Ustiapenerako Txartela eta traktorea	Bai	21	Pol6- 125-b-137(zatia)- 138A-B-(zatia)184-48-49-134 Pol7-45

Aprobetxamendurako epea, gainerako luberrietan bezala, 2019ko uztailaren 13an amaituko da.

BIGARRENA.- Hurrengo titularrei aprobetxamenduetan baja ematea

Izena	Dokumentazioa	Errolda	Adina	Partzelak
Gonzalo Gomez Otxoa		Bai	41	Pol4- 660 (2.462 metro.)
M ^a Luisa Arenaza	Nekazaritza Ustiapenerako Txartela	Bai	60	Pol 2 494 Pol2-486 0,244 Hektarea Pol2-486 0,2984 Hektarea
Eusebia Cereceda	Nekazaritza Ustiapenerako Txartela eta traktorea	Bai	88	Pol6-237)51-139 Pol7-169

HIRUGARRENA.- Aldaketa hauek jasotzea, kobratzeko agiriak igortzean.



LAUGARRENA.- Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzuari jakinaraztea.”

Alkatea: Zerbait esan nahi baduzue.

Bozkatu egin da:

Kontran:

Batere ez.

Abstentzioa:

Batere ez.

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, Maria Lorente Burgos eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ alderditik(4); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez, Unai Gotxi Kastrexana eta Alazne Lafragua Ureta, EHBildu alderditik (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Onartuta geratu da.

5.- Martxoaren 8aren ospakizunarekin lotutako deklarazioa.

Inmaculada Vivanco Retesek deklarazioa irakurri du:

“2019KO MARTXOAK 8. DEKLARAZIO INSTITUZIONALA. BIZITZAK ERDIGUNERA!

2018an argi ikusi zen nolako erantzuna eman zion gizarteak Mugimendu feministak Martxoaren 8rako egindako emakumeen lan etenaldi deialdiari: kaleak goraino bete ziren eta elkarlan-sareak indartu ziren adierazteko emakumeek beren aukera-berdintasuna erreklamatzeko hasitako borroka ez daukala atzerabueltarik.

2019an ere indarrean jarraitzen dute emakumeen aldarrikapenek **“Bizitzak Erdigunera” lelopean**. Aurten ere kaleak goraino betekodira aldarrikatzeko emakumeen eskubidea bizitza jasangarri, libre, antz eta duina izateko. Beharrezkoa da salatzea emakumeen lan prekarietatea eta pobrezia, gogor egitea indarkeria matxista guztiei, eta uko egitea bazterkeria eta arrazakeriari.

Greba feminista bost ardatzen inguruan egituratzen da, zaintzak, enplegua, pentsiodunak, ikasleak eta kontsumoa. Greba feministak bizitzako eremu guztietan erreparatuko du, soldatapeko lanetan eta soldatapekoak ez direnetan, kontsumo-ereduan, sexualitatean, arrazakerian, etab. Euskal gizarteari erantzukizun kolektiboa eskatzen dio eta baita bizitza sostengatzeko gizarte-itun berri bat ere, politika publikoak barneratu beharko dituen, egiazkoa eta eraginkorra izango den berdintasun bat lortzea bermatzeko,

Gure udaletik, emakumeengan eragina duten jazarpen- eta diskriminazio-sistema guztiak desagerrarazteko lanean, emakumeek planto egin eta Bizitzak Erdigunean kokatzea ere aldarrikatuko dugu.

Eta zer dakar horrek zehazki?

Gure bizitzak sostengatu eta beroriek erdigunean jartzeko ordainduak eta ordaindugabeak diren lan guztiak beharrezkoak diren heinean, nagusiki emakumeoi egokitu zaigun zaintza lan lan hori guztia eremu pribatu horretatik atera behar dugula; hau da, zaintza eta etxeko lanen ardura sozializatu behar dela eta gizonek eta erakunde publikoek ardura zuzenak hartu behar dituztela.

Denboraren erabilera orekatzea erabat estrategikoa eta gakoa da berdintasun politikak eraginkorrak izan daitezen. Europako Berdintasun Adierazleak kontuan hartzen dituen esparruetatik Denborakoan eragiteak, Boterea, Ezagutza, Dirua eta Enplegetako domeinuetan eragitea ere badakar.

Aurreko horiek kontuan hartuz Artziniegako Udalak hurrengo akordioak hartzen ditu, neurri modura txertatuak hartako Berdintasun Planean:



- *Artziniegako Udalak beregain hartzen du egiazkoa eta eraginkorra izango den berdintasuna bermatzeko politika publikoak aurrera eramateko erantzukizuna.*
- *Artziniegako Udalak bere politika publikoen erdigunean zaintza lanak ezartzeko erantzukizuna hartzen du beregain.*
- *Artziniegako Udalak, Mugimendu Feministak deitutako grebaren ondorioz, udal langile eta hautetsiei greba egiteko eskubidea ahalbidetzeko erantzukizuna hartzen du beregain.*

Horrela, Artziniegako Udalak bat egiten du greba deialdiarekin eta dei egiten die herritarrei Mugimendu Feministak datorren martxoaren 8rako deitutako greba feministan modu aktiboan parte har dezaten, eta baita udalerrian eta eskualdean Emakumeen Nazioarteko Eguna dela medio antolatutako gainerako jardueretan ere”.

Joseba Elejalde Ribacoba: PP alderdiak martxoaren 8aren ondoriozko adierazpen honetan abstentzioa zergatik emango duen azalduko dut era laburrean. “Abstentzioa ematearen arrazoia aldarrikatzeko jardunaldi hori garatzeko modua ez dugula partekatzen da. PP alderdiak egiazko berdintasun baten alde egiten du, non emakume zein gizonek eskubide eta betebeharrak berdina dituzten, non guztiek lanerako aukera berdina dituzten, non emakumeak ez diren diskriminatzen ama izateagatik, non urteetan zehar gizonei esleitutako lanen kristalezko sabaiak apurtzen diren. Gizartearen estigma hori apurtu eta pertsonak beren egiazko trebetasunengatik balioetsi behar dira. PP alderdiak beharrezkoa deritzo indarkeria matxista desagerrarazteari. Tratu txarrak jasan dituzten emakumeei posible diren bitarteko guztiekin (polizialak, juridikoak, psikologikoak, ekonomikoak) lagundu behar diegu salatze beldurrik izan ez dezaten eta beren bizitza berreraiki dezaten, beldurrik gabe, traumarik gabe, atzera begiratu gabe. Hori dela eta, Alderdi Popularrak espetxe iraunkor berrikusgarriaren alde egiten du kriminal guztientzat, berrerorle izan zein ez izan, betiere gizartearentzat arriskutsuak badira. PP alderdiak egiazko familiako kontziliaziorako lagungarri diren politika familiar, ekonomiko, sozial eta laneko alde egiten du. Mendekotasunerako laguntzak, adineko pertsonen zaintzarako, inolako ordainsaririk gabe adineko pertsonak, beren ahaideak, zaintez arduratzen den kolektibo horrentzako laguntzak, non gehienez emakumeak diren. Laguntzak enpresarentzat emakume bat kontratatzea ez dadin eragozpen izan haurdun geratzen baldin bada. Amatasun edo aitatasuna laneko arazoan baldintzapean egon ez dadin (autonomoen kasuan bezala) laguntzak eta politikak. Familia ugariarentzako laguntzak behar diren fiskalekin. Ezkongabe, bananduta edo alargun dauden amentzako laguntzak lan-merkatuan sartu ahal daitezkeen beren seme-alaben zaintza eta heziketari muzin egin gabe. Iraupen luzeko emakume langabetuentzako laguntzak prestakuntza-ikastaro aktibo bidez. Gizon batek egiten duen lan bera eginez emakume bat kualifikazio txikiagoko kontratu batekin eta ordainsari baxuago batekin egotea ekiditeko. Ez ditugu gure haurren gustuak, zaletasunak eta aisia baldintzatu behar sexuaren arabera. Haiek izan daitezela atsegin dituzten jarduerak garatzen dituztenak eta nahi dutenekin”.

Huelvako ikastetxe batean garatzeko jardueren kartel labur bat irakurriko dut. Kartel hori atzo ipini zuten ikastetxe horretan eta, egia esatera, irakurri dudanean zalantza eta ezinegon handia sortu zait gai honen inguruan ikastetxeetan ematen den heziketaren inguruan. Kartelak zera dio: “lehendabiziko, bigarreneko eta hirugarreneko jarduerak DBHko bat, bi, hiru eta laugarreneko tutoreei daude zuzenduak”. 12-15 urte bitarteko hurrez hitz egiten ari gara. “Laugarrena klaustro guztiak ezagutu eta burutzeko da.

1. eguna - Berdintasunaren pendrive delakoan hilaren 8ko karpeta aurki ditzakezuen bideoak ikusteak. Hilaren 8ak, nazioarteko egunak, egun horren ospakizuna du mintzagai... Clara Campoamor, Espainiako lehen diputatua, eta emakumearen botoa Espainian”.

Hori lehen eguna da, halako gaiak egingo zituzten.

“2. eguna – Egundorrek lotutako kartelak egitea.

3. eguna – kartel onenak, ostiralean, hilaren 8an, institutuko pasilloetan erakusgai ipini ahalko dira.



4. eguna - 11etan sirenak joko du. Martxoaren 8an, ostiralean, une horretan irakasleak ikasgelako emakumezko ikasleei helaraziko die”, soilik neskatoei eta argi adierazten du hizki larritan, “bere ikasgaia ematen ari denak, aldez aurretik emandako orriak markatzekoak. Emakumezko neskei orriak markatzekoak eman ostean, mutikoei ez”, berriz ere hizki larritan, “neskatoek beren atariko ordua hasi ahalko dute. Aldez aurretik irakasleek” eta hau guztiau beltzez azpimarratuta dator” “orriak markatzekoak banatzen dituen bitartean, neskatoak atariko ordura atera ahal izatea eta mutilak ez azaldu beharko du, diskriminazio hori, egiten dela mutikoei eta neskatoei uler dezaten emakumeak historian zehar denbora askoan sentitu duena, non soilik sexuagatik, lanketa batzuk egitea debekatu zaion, bidegabekoa zena zeharo baina gertatzen zena, eta zenbait herrialdetan oraindik gertatzen dena”.

Honen ondorioz, nik galdera asko egin dizkiot nire buruari. Horietako bat zer-nolako gizartea sortzen ari ote garen. Beste bat, hori al da gure gazteei helarazten ari garen errespetu eta berdintasunezko heziketa? Hirugarrena, egiatan pentsatzen dute irakasleek horiek direla neurririk egokienak gure gazteei guztiok berdinarik garelako erakusteko? Laugarrena, zein azalpen eman diezaioke ama batek edo aita batek mutiko horri etxera iristean mutiko izateagatik zigortu egin zaiola adierazten dionean? Ez zerbait gaizki egiteagatik, ez ikasi ez duelako, ez eskolan arreta ipini ez duelako, ez portaera okerra izan duelako, ez adiskide baten aurka egin duelako, gizona izateagatik besterik gabe. Zentzuduna den norbaitek pentsa dezake mutiko horrek hori ulertu egingo duela? Errudun al da mutiko bat, gizonezkoa, historian zehar gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren inguruan gertatu denagatik? Ez al da hobeto berdintasunean hezteko, guztiok eskubide eta betebeharrak berdinarik ditugula ongi azaltzea, inor ez dela inoren gainean ipini ahal soilik neskatoa edo mutikoa izateagatik, gizona edo emakumea izateagatik? Ezin da perbertsio ideologiko baten harira hezi, esanez gizonak, hala izateagatik soilik, dagoeneko matxistak, gaiztoak eta oldarkorak garelako. PP alderdiak berdintasuna egia bihurtzeko lanean jarraituko du, urteroko asmo hutsetik harago.

Nik irakurri dudaren inguruko gogoeta egin nahi dugu, izan ere, uste dut gogoeta egiteko eta jarduteko asko dugula.

Alazne Lafragua Ureta: Joseba, nik, ez nuen sartzeko asmorik, baina esan behar dut entzuten ari nintzela eta kolore guztiak ipini zaizkidala aurpegian. Lengoaiari helduz lehendabizi: mutikoak aipatu dituzu eta nik ez dut une bakar batean neskato hitza entzun.

Joseba Elejalde Ribacoba: bai, mutikoak eta neskatoak aipatu dit.

Alazne Lafragua Ureta: ez, baina orokortzen zenuenean mutikoak aipatzen zenituen. Ondoren, bazen beste atal bat, dinamika bat aipatu duzu...

Joseba Elejalde Ribacoba: azken batean plurala da, guztiak sartzen ditu.

Alazne Lafragua Ureta: ez. ikastetxe batean egin den dinamika batez hitz egiten aritu zara, gizarte honen isla dena, eta hitz egiten ari zinen feminismoa gizon eta emakumeen arteko berdintasuna aldarrikatzen arituko ez balitz bezala. Irakurtzen ari zarena iruditu zait, egitan...

Joseba Elejalde Ribacoba: ni esaten ari naizena da niri egiaz gogorra egiten zaidana dela bat-batean mutiko bat diskriminatzea mutiko izateagatik soilik.

Alazne Lafragua Ureta: baina mutikoei ez zaie diskriminatzen ordea.

Joseba Elejalde Ribacoba: Nola ezetz? Zuk atariko ordurik gabe uzten diezu, eta hori ez al da diskriminazioa?

Alazne Lafragua Ureta: ikus dezagun, baina gainerakoan emakumeen aurkako diskriminazioa da ordea.

Joseba Elejalde Ribacoba: ados, ez daukat beste ezer esateko. Zuk, nire semeari, gizon izateagatik soilik bihar eskolan esaten badiotzu ezin duela atarira atera historian zehar gertatu denagatik, arazo bat dugu. Beste era batean azaldu beharko diozu zer egin behar den berdintasunean hezteko.

Alazne Lafragua Ureta: halako dinamika pila bat dago, eta nahi baduzu beste batean hitz egingo dugu dinamika horien inguruan, lan bera egiten dutenean, eta neskato bati eta mutiko bati edalontzi pare bat ipintzen zaizkienean, eta mutikoari neskatoari baino karamelu gehiago ematen zaizkionean lan bera egiteagatik. Eta hori ere diskriminatzea al da? Dinamika bat da eta horren bidez mutikoari eta neskatoari gaur egun gizartearen edo lanaren esparru guztietan gertatzen dena erakusten zaie, besterik gabe.



Maria Llorente Burgos: egongo dira gurasoak gai izango direnak beren semeei papilomaren txertoa soilik neskatoei ipintzen zaiela, eta ez mutikoei. Orduan nik uste dut egongo direla gurasoak gai izango direnak denbora honetan guztian emakumeei zer gertatu zaien azaltzeko.

Joseba Elejalde Ribacoba: baina ikus dezagun, emakumeei historian zehar gertatu zaiena azaldu beharrik, diskriminatu egin behar al dugu?

Maria Llorente Burgos: ez zara diskriminatzen ari...

Joseba Elejalde Ribacoba: Ez al da diskriminatzea ezer egin ez duen mutiko bat zigortzea mutiko izateagatik?

Alazne Lafragua Ureta: ez da zigor bat ordea. Ez gara inora iritsiko.

Maria Llorente Burgos: Baina zergatik da zigor bat?

Joseba Elejalde Ribacoba: bada, zigor bat delako.

Maria Llorente Burgos: ez.

Joseba Elejalde Ribacoba: hau da, nik ikusten dut nola nire emakumezko adiskide guztiak atarira doazen, nire emakumezko lagun guztiak atarira doaz disfrutatzera eta ni ikasgelan geratu beharrean naiz. Historian zehar gertatu den zerbaiten erruz.

Alazne Lafragua Ureta: mutiko horrek emakumeek urteko egun guztietan pairatzen dutenaren eta gertatzen zaienaren inguruan gogoeta egiteko modu bat da, historiaz hitz egiten ari baitzara, baina ez da historia unea. Urteko egun guztietan gertatzen da, eta emakumeei gertatu zaiena, historia aipatzen baituzu, baina ez da historia garaia, gaurkotasan ari gara hitz egiten. Egunero gertatzen da ordea. Egunero ikusten dugu eta.

Joseba Elejalde Ribacoba: Ez dago modurik mutiko bati azaltzeko zer gertatzen den eta zer gertatu den, eta zer egiten duen bere amak lan egin ondoren etxera iristen denean, seme-alabak zaindu behar dituelarik, agian aita zurito bat hartzen ari denean edo futbol-partida ikusten ari denean? Azken batean familiaren kontziliazioa guztion ardura dela azaltzeko modu hobekia izango dira. Guztion ardura dela, aitena eta amena, eta hortik aurrea berdintasun horiek landu behar direla eta berdintasun hori egia bilakatu dadila, eta ez paper hutsa. Baina ez esan niri gauza normala dela ikastetxe batean mutiko bat zigortzea...

Alazne Lafragua Ureta: dinamika bat da, buelta gehiegi eman gabe. Dinamika bat da.

Joseba Elejalde Ribacoba: nire ustez, ez da hala, Alazne.

Alazne Lafragua Ureta: baina edozein kasutan ez zaitez soilik dinamikarekin geratu. Hor belarrian gaizki eman didaten gauza asko esan dituzu. Oinarritik hasita, zuretzat feminismoa zer den, beno, ez dut feminismo hitza entzunaldi bakar batean ere, edo ez zait iruditu entzun dudarik, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna lortu behar zela aipatu duzu feminismoak helburu hori duela aipatu gabe.

Joseba Elejalde Ribacoba: feminismoak hori bilatzen du azkenean. Jakina.

Alazne Lafragua Ureta: baina batzuetan badirudi feminismo hitza erabiltzeak beldur ematen duela.

Joseba Elejalde Ribacoba: ezetz, ez didala beldurrik ematen, are gehiago, badirudi mahai honetara urtero iristen dela adierazpen instituzionala, eta duela urtebete edo bi feminismoak zer esan nahi duen azaltzen hasi nintzen. Urtero goiburuan feminismoak zer esan nahi duen azaltzea nahi baduzue eta hortik aurrera garatu zergatik emango dudan abstentzioa, hala egingo dut. Baina esan nahi dizut nik azken batean gaur iazkoarekin eta aurrekoarekin alderatuz ezberdina den zerbait garatu dudala, baina besterik gabe gauza askotan bat etorriko naiz eta beste batzuetan bada ez. Baina zerbait arreta eman dit asko, eta horretan oinarritzen dut zerbait ongi egiten ari ez garela diodanean, ikastetxe batean, bihar zigortu egingo da, edo ataririk gabe utziko da mutiko bat uler dezan emakumeek mendeetan zehar pairatu dutela eta sufritu dutela matxismoa, tolerantziarik eza...

Alazne Lafragua Ureta: Eta neskato bat etxean uzten denean neskato bat delako eta hobe denean ez ikastea bere etorkizuna ezkondu, emakume izan eta seme-alabak izateak delako? Hori ere ez al da diskriminazioa?

Joseba Elejalde Ribacoba: Alazne nik hori ikusiko balu senide batekin, edo lagun batekin, edo ni halakoa izango banintz...

Alazne Lafragua Ureta: baina hori egunero gertatzen da.



Joseba Elejalde Ribacoba: jakina gertatzen dela eta horretarako dago berdintasunaren gaia, baina gauzak gaizki egiten direlako beste alderdi batzuetan gaizki egin behar al dira?

Maria Lorente Burgos: adibide txarra erabili duzu ordea. Ni jaietara irteten nintzenean etxetik niri esaten zidaten "bainura elkarrekin, kontuz etxera itzultzen zarenean, hartu mugikorra eta deitu" eta nire anaiari "ez pasatu edariarekin". Eta hori berdintasuna al da niretzat? Etxera etengabeko prezioz joan behar dudanean?

Joseba Elejalde Ribacoba: baina hori guraso bakoitzaren arabera dago. Nire kasuan adibidez nire arreba bere bi anai nagusiek baino askatasun gehiago izan du. Eta hori noren baita zegoen? Nire gurasoen baitan eta hiruroi eman diguten heziketaren baitan, eta hirurengan zuten konfiantzaren baitan. Hori zu pertsona modura garatzen zarenean zure gurasoek ematen dizuten heziketaren eta konfiantzaren baitakoa da.

Maria Lorente Burgos: ez da nirekiko konfiantza gutxi izatea.

Joseba Elejalde Ribacoba: ni ez naiz ari esaten konfiantza gutxi dutenik. Ni esaten ari naiz nik eta anaiak eragozpen gehiago izan ditugula ateratzeko orduan nire arreba txikiak baino. Eta bikain iruditzen zait. Ni ez naiz hori kritikatzeko ari. Ni azken batean kritikatzeko ari naizena da, egin ezin dena da, berdintasuna hobetzeko diskriminatu zentzu batean. Ezetz. Eta ez zait egokia iruditzen ikastetxe batean neurri horiek hartzea mutikoak kontzientziatzen saiatzeko neskatok zer sufritzen duten edo sufritu duten. Nire ustez, arazo bat dugu. Nire ustez hori ez baita pedagogia, beste izen bat izan dezake horrek, baina pedagogikoa ez da. Psikologo bat ekartzen badidazue, psikiatra bat, pedagogo bat, eta esan dezatela hori normala dela.

Alazne Lafragua Ureta: hain zuzen Joseba pedagogo da.

Joseba Elejalde Ribacoba: pedagogo bat etorri eta esaten badit baietz, eta solasaldi bat eman eta gogoia irekitzen badit, bada orduan esango dut "aizu, bada itxita nengoen".

Alazne Lafragua Ureta: nik ez dut gehiago esango, baina hain zuzen pedagogikoa da. Hain justu gakoan eman duzu, pedagogikoa da.

Arkaitz San Jose Martinez: nik xehetasun bat besterik gabe, ez nuen sartu nahi uste baitut gai honetan, eta bihar emakumeak dira protagonistak, baina irakasle modura badagokit zerbait. Ikastetxe bateko adibide bat ari zara ipintzen hemen eta ziurtasun osoa dut azken hilabeteen zehar dinamikak egiten ariko zirela, eta hau guztiau bikain ulertzen dela. Zalantzan ipintzen dut erabat ikasleren batek esatea "bihar zigortu egingo naute". Honek testuinguru bat du, eta historiako irakasle modura gainera esaten dizut historiak zer-nolako garrantzia duen gizonaren ikuspegitik, eta ez emakumearen ikuspegitik, horren inguruan pentsatu behar da, eta uste dut dinamika... esan duzunean kasu bat ipini behar zenuela pentsatu dut izango zela... Edozein kasutan harritu egiten nau Huelvako ikastetxe bateko kasu bat ekarri izana bihar egingo duten zerbaiten ingurukoa eta ez geratzea segundo bakar batean ere pentsatzen guztion diruaz lagunduta, erakunde publikoen diruaz lagunduta, egunero mutikoak gorbataz eta neskatok soinekoarekin jantzita joatera behartzen dituzten ikastetxe guztietan.

Miren Izaskun Perez Barragan: hori Alderdi Popularrari hutsaren hurrengoa iruditzen zaio... Zuk lehen aipatu duzu Alderdi Popularrak familiako politikak eta indarkeriarik eza sustatzen dituela. Alderdi Popularra izan zen Mariano Rajoy gobernuan zela aurrekontu-partida hauetan mozketak handiena eman zuena...

Joseba Elejalde Ribacoba: alderdien mozketen kontuan sartu behar badugu, gizarte arloan murrizketa handienak PSOE alderdiak egin zituen 2011n. Hitz egiten hasiz gero...

Miren Izaskun Perez Barragan: 2011n? Orain Rodriguez Zapatero aterako didazu? Tira mesedez!

Joseba Elejalde Ribacoba: hortik abiatuta sartzea nahi baldin baduzu...

Miren Izaskun Perez Barragan: hori izan baita Alderdi Popularraren argudioa, ez Alderdi Sozialistarena.

Joseba Elejalde Ribacoba: argudioak, krisi batean geunden, atzeraldi batean, eta neurri asko hartu behar izan ziren, besteak beste, zergak ez zirela igoko eta abar eta zergak igo zaizkigu guztioi. Ni naiz lehena, Alderdi Popularreko hautagai modura, bata eta kontrakoa defendatu behar izan ditudana, Mariano Rajoy gobernuko presidente izatera heldu zenean Espainia zein egoera ekonomikotan zegoen ikusi ostean. Krisi bizkor batean, erreskatetik hurbil, eta horrek dakarrenarekin. Hots, 2019. urtean gaude eta harreman instituzional batez ari gara hitz egiten



eta nik esan dut, Alderdi Popularretik egin nahi dena. Hemen hitz egiten dugu, murrizketak aipatzen baditugu bi urte daramatzagu non Arabako Foru Aldundiak, hori baita dirua biltzen duena, bi urte daramatza 200.000 milioitik gorako superabit batekin. PFEZ zergan % 2tik gora jaitsi zaigu Alderdi Popularra aspaldidanik eskatzen ari baikara hori? Ez, ez da PFEZ zergaren % 2 hori jaisten klase ertainean edo langileen klasean. Horrek zergadunek 60 edo 80 euro ordaintzen jarraitzea suposatzen du, eta diru hori gure familiako gastuetarako izan genezakeen edo gure kontsumorako.

Maria Lorente Burgos: ez da berdintasun kontua.

Joseba Elejalde Ribacoba: EAJ alderdiak ere ez... hiru diputazioetan EAJ dago gobernuan. Ez da Alderdi Popularretik duela urte askotik hona proposatzen den % 2,5 beherapen fiskala aplikatu, orduan azken batean hala hasten baldin bagara... Ez, izan ere, esaten ari zatzaizkit gizarte politikan murrizketarik handiena Alderdi Popularrak egin duela eta...

Inmaculada Vivanco Retes: Gaiari heldu diezaiokegu berriro?

Joseba Elejalde Ribacoba: ... izan ere, gizarte murrizketak zergak dira. Beraz, zuk zergak igotzen dituzunean, gizarte murrizketa egiten ari zara.

Alkatea: Joseba apur bat goaz dagoeneko...

Joseba Elejalde Ribacoba: ez, nik dagoeneko amaitu dut.

Inmaculada Vivanco Retes: nik gauza bat esan nahi nuen. Ez naiz eztabaida honetan sartuko, zur eta lur geratu naiz baina, zure agerraldiaren hasieran aipatu duzu abstentzioa emango zenuela ez zeundelako ados egiten ziren jarduerekin...

Joseba Elejalde Ribacoba: ez, jarduerak ez. Ez dut jardueren inguruan hitz egin...

Inmaculada Vivanco Retes: esan duzu...

Joseba Elejalde Ribacoba: ez natorrela bat moduarekin. Ez nator bat aldarrikapen jardunaldi hau garatzeko moduarekin.

Inmaculada Vivanco Retes: garatzeko... ea, Artziniegako programa, Huelvan irakurtzen baldin badute esango dute zein samurrak garen. 12:30etan elkarretaratzea pilotalekuan, ez gara barrikadetara joango, ez beste inora. Zazpitan autoz geratuko gara Urduñara joateko, han baitako eskualdeko elkarretaratzea. Hara ere ez goaz barrikadetara. Uste dut gehienez lapikoren batekin zarata pixka bat ateratzera. Hori agian, horra arte. Orduan, hori baldin balda horren, bada tira, hurrengoan agian soka-saltoan ibiliko gara eta mutikoei sartzen utziko diegu pixka bat.

Joseba Vivanco Retes: guztietan erasokorra Japoniako musikaren kontzertua da.

Bozkatu egin da:

Kontran:

Batere ez.

Abstentzioa:

Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, Maria Lorente Burgos eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ alderditik(4); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez, Unai Gotxi Kastrexana eta Alazne Lafragua Ureta, EHBildu alderditik (4);

Onartuta geratu da.

6.- EH Bilduren mozioa, Arabako Foru Aldundiari hertsatuki eskatzekoa Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakunde guztiekin era berean lankidetzan eta partaidetzan aritzeko, uraren kudeaketari dagokion guztian.

Joseba Vivanco Retesek mozioa irakurri du:

6.- EH Bilduren MOZIOA, ARABAKO FORU ALDUNDIARI HERTSATUKI ESKATZEKOA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ERAKUNDE GUZTIEKIN ERA BEREAN LANKIDETZAN ETA PARTAIDETZAN ARITZEKO, URAREN KUDEAKETARI DAGOKION GUZTIAN.



Ez da lehen aldia Ingurumen Sailak Arabako Toki Erakundeekiko tratu diskriminaziokoa aplikatzen duena azaroaren 29ko 89/2018 mozioa onartuta Batzar Orokorretan agerian geratu zen moduan, zeinaren bidez Arabako Foru Aldundiari hertsatuko eskatzen baitzaio Arabako Lurralde Historikoko toki erakunde guztiekin era berean lankidetzan eta partaidetzan aritzeko, hondakin-uren araztegiak ustiatu, mantendu eta kontserbatzeko zerbitzuari dagokion guztian.

Hala eta guztiz ere, gaur egun Asparrena edo Zuiako Udalek oraindik ez dut jaso dagokien finantzazioa eta eta mozio hori Ingurumen eta Hirigintza Batzordean onartu ostean eskatu zutena.

Berriki Galera jaunak zuzentzen duen Sail honetatik ohikoa den segizio-zaletasun politikoaren beste gertakizun baten lekuko izan gara, izan ere, joan den abenduaren 28an "Troperagainek Ur Partzuergoaren aldeko diru-laguntza onartzea adostu zen, "Arabako Ur Partzuergoa" izendapen berriarekin, 500.000,00 euroko zenbatekoaz Arabako Lurralde Historikoko Ur Partzuergo berria abian jartzeko. Aldundiak Partzuergo berrira atxikitzeko Toki Erakundearen aurrean defendatu duen argudio nagusietako bat zera izan da hainbat urtetan, uraren kudeaketaren gastua ezin dela diruz lagundu eta erabiltzaileen tasen bidez finantzatu behar dela. Horrenbestez, kudeaketa Entitate batean soilik zentralizatzea ekonomikoagoa izango litzateke. Adibide bat ipintzearen, proportzio horretan, Zigoitiako Partzuergoari 110.000 € legozkioke, kudeaketari dagozkion gastu arruntetarako soilik, gaur egun 55.000 € inguruko gastua duten bitartean, hain justu, erdia. Hori da kudeatzaile nagusien efizientzia ekonomikoa, hain zuzen, bikoitza xahutzea. Denborarekin ikusiko dugu non amaitzen duen diru horrek.

Argi dagoena da Aldundiak beste behin uraren kudeaketan eskumena duten Toki Erakunde gutxi batzuen alde egiten duela ekonomikoki, Araban dauden 340 baino gehiagoren artean 73 erakunderen alde eginez. Horrek egonezin handia sortzen du eta badirudi Aldundiaren arabera lehen mailako eta bigarren mailako Toki Erakundeak daudela gure lurraldean.

Arabako Foru Aldundiak edo beste edozein erakundek Partzuergo berri bat bultzatzeko ekimena legezkoa izanik, argi dago Foru Gobernu honen kudeaketa oso eskasa ari dela izaten. Lurraldeko ura zentralizatu eta kontrolatzeko bere irrika horrekin, Foru Gobernuak Zauri larriak eragin ditu lurraldean zehar, sendatzen denbora asko beharko dutenak, horien ondorioak oraindik ezin direlarik iragarri Entitate berri horretan sartzeko erabakia, borondatez edo behartuta, hartu zuten Erakundeetarako, nahiz aukera horren alde egin ez duten gainerako Toki Erakundeetarako.

Horregatik guztiagatik, Euskal Herria Bildu udal taldeak hurrengo MOZIOA aurkezten du, Udalbatzan eztabaidatu eta onar dadin:

- Artziniegako Udalak hertsatuki eskatzen dio Arabako Foru Aldundiari Toki Erakundeetako edo Arabako Partzuergoetako uraren kudeaketari dagozkion kostuak diruz lagun ditzan hala eskatzen badute, abenduaren 28ko 842/2018 Erabakian Arabako Ur Partzuergorako proposatutako zenbatekoaren proportzioa mantenduz.*

- Artziniegako Udalak Arabako Foru Aldundiari, Arabako Batzar Nagusiei eta gure udalerriko Kontzejuei helaraziko die erabakia".*

Inmaculada Vivanco Retes: EAJ alderditik zuzenketa bat aurkeztu dugu Bilduren mozio honen aurrean, eduki honekin:

"1. Artziniegako Udalak hertsatuki eskatzen dio AFari Toki Erakundeetako edo Arabako Partzuergoetako uraren kudeaketari dagozkion kostuak diruz lagun ditzan hala eskatzen badute eta araudian ezarritako legezko betekizunak betetzen badituzte, abenduaren 28ko 842/2018 Erabakian Arabako Ur Partzuergorako proposatutako zenbatekoaren proportzioan.

2. Artziniegako Udalak egokitzen jotzen du hurrengo betekizunak betetzea:

a) Ordainketa egiteko alde aurretik 2019. urteari dagozkion gastu eta diru-sarreraren aurrekontuak aurkeztuko dira.



- b) *Diru-laguntza hori 2019ko ekitaldia amaitzean erakundeak edo partzuergoak onartutako finantza-kontuak aurkeztuz justifikatuko da, justifikatzeko gehieneko epea 2020ko uztailaren 31 izanik.*
- c) *Diru-laguntzaren azken kalkulua egiteko 2019ko ekitaldiko galeren zenbatekoaren diru-laguntza gehi azpiegitura hidraulikoaren obrak amortizatzeneko kuota hartuko dira kontuan.*

Alkatea: Zer edo zer esan nahi duzue?

Joseba Elejalde Ribacoba: batzordean argudiatu nuen jadanik. Alderdi Popularra izan zen lehena duela lau urte partzuergo berri hau abian ipintzen. Bere garaian lortu zuen eta orain dagoeneko sortua da. Nik esan nuen nire ustez ez zela normala Araban partzuergo bakarra izatea, urari dagokion guztia kudeatzeaz arduratuko dena. Ez zaidala logikoa iruditzen 17 partzuergo izatea, izan ere, azken batean, Bilduk ongi esaten duen moduan hori gastua bider 17 edo 27 egitea da, edo Araban ura kudeatzen duten administrazio guztiekin biderkatzea. Sortu berri den erakunde berri hori Toki Erakunde guztiak hartzen dituen erakunde bat izan behar dela uste dudala, bereizketarik gabe. Ordaintzea derrigorrezkoa izan beharko litzatekeela uste dut. Ez da horrela. Hala eskatzen duten Toki Erakundeek ordaintzen doaz eta, eskatzen ez dutenek, uraren kontua dagoeneko konponduta dutelako, bada ez dute egingo. Nire ustez hori akatsa da, izan ere, gure probintzian, oso handia ere ez dena, gauza bera kudeatzen ari diren erakundeetan xahutzen jarraitzea da. Nik Aldundiari hertsatuki eskatuko nioke, partzuergo berri horretan, Arabako probintziako Toki Erakunde guztiak barnera daitezela edo barneratu behar izatea, Gasteiz salbuetsita, Amvisarekin kudeatzen baita.

Alkatea: Gasteiz Partzuergoan egotea ere ez litzateke gaizki egongo.

Joseba Elejalde Ribacoba: bai, baina Amvisa azken batean udalaren baitakoa denez, hor beste arazo batzuk dituzte. Nire ustez Amvisak Arabako ur guztia kudeatu beharko zukeen azken batean, izan ere, herritarren uraren % 90 kudeatzen du, Gasteiz eta ingurukoa, hain justu. Baina tira, hori ezin daiteke egin, azken batean, Amvisa udalaren baitakoa baita, azken batean Aldunditik Toki Erakunde guztiak hartzen dituen sozietate bat bultzatzea daiteke, nire ustez, eta probintziako gainerako guztiak Toki Erakunde guztien ura kudea dezala, Gasteiz salbuetsita, bakarria egon dadin, eta ekidin dezagun, Bilduk bere idatzian ongi adierazten duen moduan, batzuen eta beste batzuen artean desorekak egotea diru-laguntza bat jasotzeko garaian.

EH-Bilduren mozioa bozkatu da:

Kontran:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, Maria Lorente Burgos eta Miren Izaskun Perez Barragan EAJ alderditik (4);

Abstentzioa:

Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Aldeko botoak:

Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez, Unai Gotxi Kastrexana eta Alazne Lafragua Ureta, EHBildu alderdikoak (4).

Ez da onartzen, Alkatearen kalitateko botoarekin.

EAJ taldearen mozioa bozkatu da:

Kontran:

Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez, Unai Gotxi Kastrexana eta Alazne Lafragua Ureta, EHBildu alderdikoak (4).

Abstentzioa:

Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, Maria Lorente Burgos eta Miren Izaskun Perez Barragan EAJ alderditik (4);



Onartuta geratzen da, Alkatearen kalitateko botoarekin.

7.- EH Bilduren mozioa, Artziniegako Etnografia Museoa kudeatu, finantzatu eta bultzatzeari buruzkoa.

Joseba Vivanco Retesek mozioa irakurri du.

“Arabako Batzar Nagusiko Batzordeak guztien adostasunarekin otsailaren 13an Artziniegako Etnografia Museoa kudeatu, finantzatu eta bultzatzeari dagokionez onartutako mozioaren ondotik, Udalbatzak honakoa erabaki du:

Artziniegako Udalbatzak Artziniegako Etnografia Museoa, Arabako Lurralde Historikoan estrategikoa, mantentzea bermatzeko bere apustua agertzen du, haren eraketaren izaera parte-hartzaile, asoziatibo eta auzotarra mantenduz, Artearen aldetik museoaren gainean nahiz hartako funtsen gainean elkar kudeaketa izateaz gain”.

Alkatea: EAJ alderditik proposamen bat aurkeztu dugu. Irakurri egingo dut:

“Arabako Batzar Nagusiko Batzordeak guztien adostasunarekin otsailaren 13an Artziniegako Etnografia Museoa kudeatu, finantzatu eta bultzatzeari dagokionez onartutako mozioaren ondotik, Udalbatzak honakoa erabaki du:

Artziniegako Udalbatzak Artziniegako Etnografia Museoa, Arabako Lurralde Historikoan estrategikoa, mantentzea bermatzeko bere apustua agertzen du, haren eraketaren izaera parte-hartzaile, asoziatibo eta auzotarra mantenduz, Artearen aldetik museoaren gainean nahiz hartako funtsen gainean elkar kudeaketa izateaz gain.

Udalak bideragarritasun-planaren eraketan parte hartzeko bere prestutasun eta lankidetzara agertzen du, arlo juridikoari, kudeaketari, finantzazioari, heziketari eta museoari dagozkion premiak aztertu eta proposatuko dituena, erakusketa-espazioaren jarraikortasun eta kontsolidazioa XXI. mendeko museo baten arabera ahalbidetzeko xedez.

Udalak bere prestutasuna agertzen du bideragarritasun-planaren ondorioz ateratzen den proiektuan ekonomikoki kolaboratzeko, legez aurreikusten diren baldintzetan, eta beste erakunde edo entitate finantza-emaille batzuekin batera”.

Gertatzen dena da, tira, mozio hau mantendu egingo dela jakinarazi duzue. Hau Batzar Nagusietan guztien adostasunarekin onartu zenaren berdina da ia, orduan bada, tira hau azkenean ez dugu aurkeztuko. Zerbait esan nahi baduzue.

Arkaitz San Jose Martinez: zuen proposamena helarazi diguzue, eta zenbait esaldirekin zalantzak genituen eta gure mantentzea erabaki genuen zegoen moduan. Azkenean berdina egiten diguzue eta. Mozioak aurkeztu ditugu eta zuek mozio alternatiboak aurkeztu dituzue. Aurkeztu zuen berezko mozioak, ez dakit bada. Horrela aurkeztu dugu eta horrela bozkatzea nahi dugu, besterik gabe.

Alkatea: Zuzenketak egin daitezke, ezta?

Arkaitz San Jose Martinez: bai, ados. Eta nire galdera da, zuzenketak egin badaitezke, zein eperekin? Osoko saioaren dokumentazioarekin joan behar dira, ezta? Ez dakit, ondoren posta elektronikoz bidaltzen dizkiguzue eta.

Alkatea: kasu honetan azkenik ez dugu aurkeztuko.

Bozkatu egin da:

Kontran:

Batere ez.

Abstentzioa:

Batere ez.

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, Maria Lorente Burgos eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ alderditik(4); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez, Unai Gotxi



Kastrexana eta Alazne Lafragua Ureta, EHBildu alderditik (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Onartuta geratu da.

8.- Alkatetzaren ebazpenak jakinaraztea.

Alkateak, idazkariak lagunduta, 30-53 bitarteko Dekretuak direla jakinarazi du, eta 49. dekretua falta da.

Arkaitz San Jose Martinez: 30. eta 27.a ere bai, ezta? Edo zer gertatzen da 27.ekin?

Ascension Hormazabal Meabe: 27. aurreko saioan jakinarazi zen.

Arkaitz San Jose Martinez: ados. Nik 53. ere banuen, azkena, ez dait zehazki zein zentzutan, dekretu horrek esanahi duenari buruzko azalpen bat zen. Partidaz ari da, 2018ko ekitaldian egikaritu ez direnak, eta diru-sarrerekin nola koadratzen duen...

Ascension Hormazabal Meabe: baina 577ko azken partidaren agertzen den soberakinarekin koadratzen du. Ni, galdetu didazunean, begiratzen aritu naiz eta ez nuen ikusten. Ulertzen duzu?

Arkaitz San Jose Martinez: ez.

Ascension Hormazabal Meabe: soberakinetik dagoen milioitik 577.000 hartzen ditugu 1.665.000ko gastuei aurre egiteko, dauden diru-sarrera handiagoez gain.

Arkaitz San Jose Martinez: hots, esan dezagun, hemen zenbait proiektu daude, hirigintza antolamendurako plan orokorra, igerilekuen egokitzapena..., diot garrantzitsua delako era berean dirua zergatik dugun soberan jakitea. Azken batean, egin ez diren gauzak dira... izapideen eskuliburua, landa bideak...

Alkatea: abenduaren 31n d fasean dauden gauzak dira, egikaritzen ari direnak, horietako zenbait, orduan 2019ko ekitaldira pasatzen dira.

Arkaitz San Jose Martinez: ez dira egikaritu eta gastu berarekin igarotzen dira.

Alkatea: bai, baina dagoeneko egikarituta dauden ekintzekin. Orduan gastu berarekin gaineratzen dira. Eta ondoren soberakinaren gaineratze modura sartu direnak ere Foru Planaren kargura finantzatuta dauden inbertsioak dira. Horiek ere soberakinaren gaineratzean sartu dira.

Arkaitz San Jose Martinez: horregatik zorabiatu egiten naiz apur bat honekin. Hauek hasi edo ez hasi 2018ko ekitaldian ordaindu ez diren esku-hartzeak dira. Beraz, diru hori, gastu hori, hurrengo ekitaldira igarotzen da aurrekontu kontsignazioarekin, baina orduan gastu hori eta kontsignazio hori mantendu egiten dira esku-hartze horietarako. Eta kasualitatea da bestearekin bat etortzea azken zentimora arte?

Ascension Hormazabal Meabe: ez, soberakinarekin koadratu egiten duelako.

Alkatea: kontua ez da azken zentimora arte bat etortzea, kontua da inbertsio horiekin lotuta dauden diru-laguntza guztiak batzen direla, eta estaltzen ez dena diruzaintzako soberakin likidoaren kargura gaineratzen da, gastu orokorretarako soberakinera, 577.285,70 euroan. Orduan, Alkatetzaren 50. dekretua hartzen baldin badugu, bertan adierazten denez 1.201.383,65 euroko diruzaintzako soberakina dugu, hortik 577.285,70 uro kendu behar ditugularik. Orduan, soberakina gaineratu ondotik, gastu orokorretarako geratzen zaigun diruzaintzako soberakina 624.107,95 da.

Arkaitz San Jose Martinez: horregatik galdetzen nion Asceni. Soberakina gehiago da. Ekitalditik egikaritu ez dena 1.665.000 horretatik gorakoa da, hortik zati bat kontsignatua da eta hurrengora igarotzen da, baina are gehiago, egiaz ez da soberakina kontsignatuta baitago.

Ascension Hormazabal Meabe: hori da. Kontsignatuta dago eta egikaritze-fasean, baina koadratzeko 577.000 horiek hartzen dira, horregatik koadratzen du diru-sarrera eta gastuarenak, edo egon diren diru-sarrera handiagoak, beste partida hauek direnak.

Alazne Lafragua Ureta: nik 51.aren inguruan galde egin nahi nuen. 51. zenbakia kartel bat ipintzeko biniloa erosteari buruzkoa da, Otsati Elkarteak egindako proposamenaren ondotik, Artziniegan seinale bat ipintzeko, eta jakin nahi nuen zer den azkenean ipiniko dena, hemen Artziniega HerriMorea ipintzen duela ikusten ari bainaiz. Hori da biniloan ipintzeko asmoa dagoena? Zera ipintzen du "kontratuaren xedea: Artziniega HerriMorea biniloa erostea".



Inmaculada Vivanco Retes: ez baina hori zerak bidali du... nik Mirenekin hitz egin nuen azken gauza, ez dakit zurekin ere hitz egin nuen.

Alazne Lafragua Ureta: bai, gero deitu nuen, baina gero hemen ikustean...

Inmaculada Vivanco Retes: biniloa gauzatzeko aurrekontuak bidali ziren, baina uste dut diseinuak eskatu zizkiotela. Eta uste dut hori oraindik ez dagoela prest. Ez dakit, ez dut uste bihar egongo denik. Baina diseinuek agindu egin behar dute, eta horiek izango dira agindu eta hautatu behar dutenak.

Alazne Lafragua Ureta: baina orduan Artziniega HerriMorea delakoa esaldi bat da besterik gabe, eta ez da kartelean ipiniko dena.

Inmaculada Vivanco Retes: ez, ez, uste dut ipintzen zuela... foroan aipatu zena, adierazi zen HerriMoreaerasosexistarikez.

Alazne Lafragua Ureta: noski, Otsatiren proposamena "erasosexistenauskako Herria" zen, edo bestela "herrihonetanezdiraerasosexistarikonartzen". Orduan, jakina, ea hemen kontratuaren xedean zera ipintzen duela ikus dezaket "Artziniega HerriMorea biniloaren erosketa", nik ez dakit hemen ateratzen den zenbatekoa ondoren, hori izango baita prezioa, aldatu egingo den beste esaldi baten arabera. Edo esaldi hori mantendu egingo ote den.

Inmaculada Vivanco Retes: nik uste dut biniloa egitearen prezioa dela.

Alazne Lafragua Ureta: Edozer gauza ipintzen dela ere?

Inmaculada Vivanco Retes: nik baietz uste dut, baina ez dakit... Mirenekin berretsi beharko litzateke hori.

Alazne Lafragua Ureta: nik Mirenekin hitz egin nuen eta niri Mirenek beste zerbaite esan zidan, horregatik hemen ikustean harrিতuta geratu naiz.

Inmaculada Vivanco Retes: ondoren diseinuak eskatu nizkion hautatzeko.

Alazne Lafragua Ureta: ados, baina hori ez da adieraziko den esaldia.

Inmaculada Vivanco Retes: ez, ez.

Unai Gotxi Kastrexana: ez dut nahastu nahi, baina aurreko egunean erregistroan aurrekontuak zeuden eta diseinua atxikitzen zela adierazten zen. Gertatzen dena da ez zegoela.

Inmaculada Vivanco Retes: baina uste dut beste proposamenetako batean diseinu bat gaineratzen zela. Baina uste dut zenbatekoa bikoiztu egiten zela.

Unai Gotxi Kastrexana: ADIrenean diseinua atxikitzen zela adierazten zen.

Inmaculada Vivanco Retes: batean diseinua agertzen zen, baina honetan zehazki, niri bederen hori da Mirenek esan zidana, diseinuak eskatu zituela.

Alazne Lafragua Ureta: beno, edozein modutan, eta edozein delarik ere ipintzen den esaldia, niri gustatuko litzaidake hau proposatu duen elkartearekin hitz egitea, eta adostasun batera iristea. Foroa aipatzen zen, forora ezinezkoa izan zen joatea, ez guelako joateko asmorik foroa zein modutan hartzen ari zen ez zitzaigulako gehiegi gustatzen, baina egia da, elkarte batetik proposatu denez, egokiena da proposamena luzatu duen elkarte horri gutxienez parte hartzen uztea hartuko den erabakian.

Alkatea: foroan parte hartzera adoretzen zaituztegu.

Alazne Lafragua Ureta: bai, baina modua... beno, hori beste eztabaida bat da, baina foroaren moduak... jarduerak antolatu baino ez dira egingo eta helburua beste bat zen.

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, Maria Lorente Burgos eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ alderditik(4); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez, Unai Gotxi Kastrexana eta Alazne Lafragua Ureta, EHBildu alderditik (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

9.- Udal kudeaketaren kontrola.

- Alkatea: beno atzo prentsan atera zen gai baten inguruan hitz egingo dugu, Lucartena, jadanik agertzen baitzen Lucartek makinak erosi nahi dizkiola Bizkaiko Aldundiari, akordio batera iritsi nahi du, osoko bilkuraren batean aipatu izan dugu, aspaldidanik zuen enpresak converting delakoa hona Artziniegara ekartzeko, eta badirudi urte honetan zehar gauza daitekeen gauza bat dela. Gueñes zentro logistiko bilaka dadin, eta converting makina, dagoeneko hemen daudenak, txatarra eginez Artziniegan dauden makina zaharrak, aprobeitza daitekeen bat salbuetsita,



besteekin txatarra egiten ari dira, eta Gueñesen dauden makinak ekartzen dituztenean, ez dakit besterik hartuko duten, eta beno converting delakoa hona ekartzea. Orduan xaboez gain, converting jarduera ere hartuko du eta horrela Artziniegara itzuliko da. Era berean, esan nahi dut oraintxe bertan Spri eta Aldundiarekin solasean gaudela, ahalik eta azkarren zuntza zonalde horretara eramateko, eta Lucarten zuntza ipintzeko eta Clarianten ipini ahal izateko. Enpresak planteatzen ari zaizkigun kontu bat da, baten batek estaldura aldetiko arazoak ere izan ditu, eta elementu garrantzitsua izan daiteke enpresek beren jarduera hemen Artziniegan garatzea lagun dezakeena.

- Unai Gotxi Kastrexana: ni aurreko osoko bilkuretan planteatu izan den gai batekin hasiko naiz, oker ez baldin banago gaur onartu dugun aktaren batean ere badago, eta Udal honen obra batekin dago lotuta, zeresana izan zuena, eta ez dakit oraindik zeresana ematen ari den, hots, udaletxe zaharrekoa. Galdetu nahi dut udaletxe zaharraren teilatuan itoginak topatu zirenetik esku hartu ote den horiek saihesteko.

Alkatea: izan ditugun koordinazio-bilkuretan egiteke dagoen gaietako bat da, teknikarien aldetik.

Unai Gotxi Kastrexana: beraz, ez.

Alkatea: egiteke, gauzatzeke, dagoen lanetako bat da.

Unai Gotxi Kastrexana: Teknkariak diozunean Udalez ari zara?

Alkatea: bai. Udalez ari naiz.

Unai Gotxi Kastrexana: gaizki egikaritu zuen enpresari ezer eskatu gabe?

Alkatea: ez, ez, ez. Egoera hori erregularizatzeko izapideak hasi behar dira, enpresari eskatzeko.

Unai Gotxi Kastrexana: nik esan nizun, oker ez banago iraileko, urriko edo azaroko osoko bilkuran, uda txikia izan zen... San Martineko uda txikia aprobetxa genezala, ongi etortzen ari baitzitzaigun, negua iritsi da, ez da deus egin, lehenago egin zitekeenean. Otsailean hiru aste nahiko on etorri dira, eta da deus egin, eta ez dakit berriro sartu izanaren konstantziarik dagoen.

Alkatea: bada nik ez daukat berriro sartu izanaren konstantziarik.

- Unai Gotxi Kastrexana: hemen dudan beste gai bat hondatutako espaloiena da. Hori ere egin egingo zenutela esan zenidan. Ikusi nuen herriguneko espaloiak pintatzen hasi zirela... eta zer?

Alkatea: partida 2019ko aurrekontuan daukagu. Ikusi duzue. 10.000 euroko partida bat dugu, eta hori ere 2019an egikaritu nahi da.

Unai Gotxi Kastrexana: espaloiak duela zenbait hilabete pintatuta daude jadanik.

Alkatea: bai.

Unai Gotxi Kastrexana: esan zenidan egin egingo zenutela, eta oraindik zain gaude.

Alkatea: bada bai, eguraldia... Ahal denean egingo da.

Unai Gotxi Kastrexana: hots, hau hurrengo legealdirako utziko dugun beste kontu bat gehiago da?

Alkatea: ahal denean egingo den zerbait da.

Unai Gotxi Kastrexana: erantzun horrekin, zer esan nahi didazu? Baietz.

Alkatea: lan-karga daukagula eta ahal denean egingo dugula.

Joseba Elejalde Ribacoba: Iñigo, galdera bat, ezin duzu hori Alkatetzaren dekretu bidez atera eta obra horiek egikaritzeko enpresa bati eman? Nik ez dut ulertzen hiru, lau urte dagoeneko, daramatzen obra batekin, nik 2016ko bat dut eta 2015eko bat... nik uste dut azken batean bi obra txiki direla Iñigo, eta nik uler dezaket udaletxeko langileek, eta sarritan aipatu izan dut hemen, lan-karga handia izan dezaketela, eta gainera jendea dugu bajan eta abar eta abar. Baina, nik uste dut azken batean, kontratu txiki bat dela, Alkatetza Dekretu batekin udalerrri honetako enpresa bati, edo inguruko udalerriko bati, espaloi horiek konpon ditzatela eta ekidin ditzatela herritarrek espaloi horietan ibiltzean ditugun arazoak eta erortzeko arriskua, eta ekidin dezatela osoko bilkura guztietara hona etortzea galdera berdinekin. Izan ere, Unai esaten ari denaren harira, ondoren nirea etorriko litzateke, eta joan den hilean esan nizun berbera izango da, eta esan zenidan "horretan gaude". Eta joan den hilean, eta 2016an ere horretan geunden, eta



2017an horretan geunden, eta 2018an horretan geunden, eta 2019an horretan gaude, eta 2020an dagoeneko ezingo dizut galdera luzatu.

Maria Lorente Burgos osoko bilkuratik irten da 20:10ean.

Unai Gotxi Kastrexana: eta ez kexatu, ni 2015az geroztik nago eta.

Joseba Elejalde Ribacoba: eta ez duzu txosten teknikorik beti esaten didazu eta.

Alkatea: uste dut balioespen teknikoa eginda dugula enpresa baten aldetik, berrikusi egin behar da, talde teknikoaren aldetik...

Unai Gotxi Kastrexana: Baina zenbait denbora daramagu berrikusten?

Alkatea: bada, begira, nahi baduzu batzordera joango gara eta daukagun lan-kargari buruz hitz egingo dugu. Batzorde batean hitz egingo dugu.

Unai Gotxi Kastrexana: Zergatik nahi duzu ezkutatu? Orain esan diezadakezu.

Alkatea: daukagun lan-kargaz hitz egiten ari gara. Leporaino gabilitza, ezin iritsi.

Unai Gotxi Kastrexana: esleipen bat da, Iñigo, eta 2015az geroztik dago proposatuta. Lotsa eman beharko lizuke.

Alkatea: 2015az geroztik, zein?

Unai Gotxi Kastrexana: espaloiena. 2015az geroztik dugu arrastaka. Eta behin baino gehiagotan atera dugu osoko bilkuran.

Alkatea: espaloiaaren kontuaren 2015eko proposamena ez dugu. Daukagun lehendabiziko aurrekontua...

Unai Gotxi Kastrexana: EH-Bilduren eskaera 2015az geroztik dago erregistratuta.

Alkatea: eta...?

Unai Gotxi Kastrexana: lau urte dagoeneko.

Alkatea: bai, eta? ez dugu ezer egin urteotan? Ez al da ezer egin urteotan?

Unai Gotxi Kastrexana: Hori bizkortasuna!

Alkatea: Ez al da ezer egin urteotan?

Unai Gotxi Kastrexana: ez dakit, baina idatzi horiei erantzuna eman behintzat, aurrekontu bat eskatuz besterik ez bada ere.

Alkatea: 2018ko iraileko aurrekontu bat dugu, non ni kontratistarekin joan bainintzen espaloiak ikustera.

Unai Gotxi Kastrexana: bada ordutik ere lau hilabete pasa dira dagoeneko.

Alkatea: ondoren ere itzuli da hara teknikariek espaloiak ikustera. Balioespena talde teknikoak egin behar du, eta kito.

Unai Gotxi Kastrexana: ados, eta espaloien kontuarekin ere bai, herriguneko espaloiak markatu dira, baina, 2015ekoaz aparte erregistratu genituen beste idatzietako batean proposatzen genituen beste espaloietan ere esku-hartzea aurreikusten al da?

Alkatea: esan dut talde teknikoak erabakiko zuela.

Unai Gotxi Kastrexana: Baina irailean jasotako aurrekontu horretan balioetsi al da? Museoaren aurrealdeko espaloiak, hemengo biribilgunekoa...

Alkatea: nik uste dut oroharreko prezio bat egiten zela, esku-hartzen den metro karratuko hainbeste. Ondoren, balioespenean, teknikariek neurtzen aritu baitziren, nik ez dakit zein izan den... ez dakit zein den balioespena.

Unai Gotxi Kastrexana: ea ez dizudan horren inguruan berriro galdetu behar.

- Unai Gotxi Kastrexana: eta dakarkidan azken gaia, aurreko erantzunarekin lotu didazu eta, esan didazu espaloien kontsignazioa aurrekontuan agertzen zela. Beno, batzordean aurrekontuaren inguruan galdetu nizun. 2018ko azaroaren 22an EH-Bilduren lehendabiziko proposamenak erregistratu genituen, eta ez dugu erantzunik jaso. Otsailaren 25ean berriro erregistratu genituen, eta orduko horretan ere ez dugu erantzunik jaso. Batzordean esan zenidanez...

Alkatea: batzorde bat izango dugu.

Unai Gotxi Kastrexana: ... batzorde bat izango dugula. Noiz galdetu nizun eta esan zenidan oso pozik zeundela luzatutako aurrekontuekin.



Alkatea: batzorde bat izango dugu. Batzordean eztabaidatu behar dira aurrekontuak.

Unai Gotxi Kastrexana: Baina noizko aurreikusten da batzorde hori? Batzordean galdetu nizun, eta ez zenidan erantzunik eman.

Alkatea: hilabete honetan batzorde bat deituko dugu.

Unai Gotxi Kastrexana: Hilabete honetan? Ados, batzordean baino zerbait zehatzagoa atera dizut behintzat. Beste gauza bat, espero dut ez dugula hurrengo legealdira itxaron beharrik izango aurrekontuak onartzeko.

Alkatea: onar daitezela behar da.

Unai Gotxi Kastrexana: beno, baina onartzeko aurkeztu egin beharko dira. Izan ere, esan nizun era berean museoko diruaren mugimenduarekin, 70.000 eurotik partidano utzi asmo zenituen mila eurotara, oso polita den zifra bat dago banatzeko izango duguna, eta horretaz hitz egin behar da.

Alkatea: beno, baina diru-sarrera gutxiago ere badago. Eta Tokiko Erakundearen Finantzaketa-funtsean ere gutxiago dago.

Unai Gotxi Kastrexana: esan nizun noiz hitz egin behar genuen.

Arkaitz San Jose Martinez: Tokiko Erakundearen Finantzaketa-funtsetik ez al zegoen gehiago?

Alkatea: Tokiko Erakundearen Finantzaketa-funtsetik hasierako aurreikuspenean baino gehiago dago, gertatzen dena da behin betiko banaketa txikiagoa izan dela.

Arkaitz San Jose Martinez: nik uste nuen gehiago egongo zela...

- Arkaitz San Jose Martinez: nik kontu pare bat. Oso ongi dago osoko bilkura baterako lau akta jasotzea, gauza asko gogorarazteko aukera ematen baitu. Akta honetan genuenez abenduaren 26an euskararen sustapenerako ekintza-plana onartu genuen, datozen lau urtetarako plan estrategikoa. Ondoren, era berean, beste batean, azken osoko bilkuran ere hitz egin genuen diru-laguntzei buruz eta euskarari ematen zitzaizkion puntuez, eta hori guztiori hemen dago gainera aktan islatuta, asko ote zen, gutxi ote zen, badirudi ez dela nahikoa. Eta zergatik esaten dut hau? Dagoeneko entzuten delako elkarte batzuk, asmo onenekin, aniztasuna eta gauza berriak eta abar bilatu nahirik, ni zenbaitetan izan naiz haurrentzat eta gazteentzat prestatutako jardueretan gaztelaniaz egiten direnak, gure errealitate soziolinguistikoaren arabera 30 urtetik beherako ia guztiek, ez badira gehiago, euskaraz dakitenean, eta halako kontuetan hanka sartzen dugu. Baina are larriagoa iruditzen zait administrazioari berari gertatzen zaionean eta jarduera bat antolatu eta gaztelaniaz garatzen denean. Eta inauteriei buruz ari naiz, inauterietan izan ziren ekitaldiez, joan den astean, non euskarak, diot, dagoeneko onartu dugu datozen lau urtetarako euskara-plana, baina ondoren halako gauzek alde egiten digute, eta eredu izan behar badugu, bada arretaz ibili behar dugu halako gauzekin. Erabiltzen den lengoaia, lengoaia lehen erabili den moduan, eta baita lengoaia erabiltzen den hizkuntza gisa, eta euskarari lehenatasunik ez ematea nahiko kezagarria iruditzen zaigu.

Inmaculada Vivanco Retes: nik esan diezazuket, pertsonalki, ekitaldia eskaini zidanean, joan eta esan nion jarduera..., esaldiren bat entzun nuelako, esan nuen, jarduera euskaraz, eta esan zuen "bai, bai, gaztelaniaz zerbait sartuko dut aita eta amentzat". Ados, esan nion, baina nagusiki euskaraz. Nik esan diezazuket gerora handik ibili nintzela, aurrera eta atzera ibili nintzen, ez nintzen adi egon ekitaldi osoa nola garatzen zen begira, baina esan diezazukedana da, pertsonalki joan eta esan egin niola, jarduera euskaraz garatzeko zela. Ni ez naiz jabetzen gero gehiago erabili ote zuen, edo nola egin zuen, ezin dizut esan ez bainintzen adi egon. Ez nintzen txakur zelatari modura egon bere ekitaldi osoa entzuten. Pilotalekuan atzera eta aurrera ibili bainintzen eta ez nintzen adi egon esaten zuenaren edo esaten ez zuenaren inguruan. Baina esan egin nion bederen. Eta kontratazioak egiten direnean euskaraz egiteko egiten dira, are gehiago haurrei zuzenduta daudenean.

Arkaitz San Jose Martinez: bai, baina tira, dagoeneko haur eta gazteetatik harago eraman behar dugula uste dut. Esaten ari naiz, 40 urtetik beherakoen artean, gehienok D eremuan matrikulatuta egon garela eta nahiz eta ez hitz egin...

Inmaculada Vivanco Retes: eta horrelako ekitaldi bat ulertzeko edozein da gai, baita nagusiagoak direnak ere.

Arkaitz San Jose Martinez: beno, bada horixe, arreta izan kontu horiekin.



- Arkaitz San Jose Martinez: eta ondoren, zerari dagokionez sarrera-erregistroan idatzi bat dagoela aprobetxatuz, eta azken osoko bilkuran ere atera zen gai hori, autobusaren geralekuak hobetzeari eta erantsitako obrei dagokienez, nola geratu den. Erregistroan ikusi dugunez hori hobetu egin behar dela dioen idatzi bat dago, Alkateak, osoko bilkuran agertzen den eran dio "ez da horrela geldituko, egia da hesia ipini zela..." bana tira, ez dakit gauzatuko den esku-hartzeari buruz zerbait zehatzagorik ba ote den.

Bai, modelo bat ekarri dute, hasiera batean katalogoan ongi egokitzen dena, lagin bat ekarri dute, eta ez da ongi geratzen. Orduan beste eredu ezberdin bat ekarriko dute.

Arkaitz San Jose Martinez: Ate bat?

Alkatea: hesia eta atea. Bi gauzak.

- Alazne Lafragua Ureta: ni ere oso labur mintzatuko naiz. Galdera bat egiteko da, elikagaien bankua lekualdatu da, ezta? Elikagaien bankua banatzeko puntua.

Inmaculada Vivanco Retes: bai.

Alazne Lafragua Ureta: Oraintxe bertan duen kokapenetik elikagaiak jasotzera doazen pertsonen anonimotasun eskubidea bete daiteke? Nahiko erdian baitago, agian ez da lekurik egokiena. Garrantzitsua da eta, gizarte-laguntzarekin gertatzen den bezalaxe, garrantzitsua da jakitea jende horrek anonimotasunerako eskubidea ere baduela, eta sarritan ez du gogorik jendeak nora doan jakin dezan, eta zergatik ari diren janaria biltzen. Nik uste dut oraingo kokapena ez dela egokiena.

Inmaculada Vivanco Retes: elikagaien bankutik ere aipatu dugu hori eta ez dute inolako trabarik ipini. Nik esan diezazuket, adibidez gaur Laudiotik pasa naizela, elikagaien banaketa egiten ari ziren, eta ez dago ez ezkutatuta ez jendearen ikuspegitik aparte.

Alazne Lafragua Ureta: beste leku batean gaizki egiteak ez du esanahi hemen ongi egin ezin daitekeenik.

Inmaculada Vivanco Retes: ez, ez, gaizki ez. Ez dakit zenbat urtetik hona egiten ari diren.

Alazne Lafragua Ureta: urte askoan egiten ari ahalko dira. Baina nik uste dut kontuan izan behar dela zerbitzu hori erabiliko duen jende askok askotan ez duela gogorik jendeak jakin dezan zergatik joan behar duen, edo zergatik ari den elikagaiak biltzen. Nik uste dut ez dela asko kostatzen hori kontuan hartu eta leku egoki bat bilatzea jende hori ahalik eta diskrezio handienarekin joan dadin. Agian bada axola ez zaion jendea, baina agian lotsatu egiten den jendea ere bada. Nik uste dut kontuan hartu beharko litzatekeela. Ez dakit lehen zuen kokalekua egokiena ote zen.

Inmaculada Vivanco Retes: erabiltzaile guztiei egin zitzaizen kontsulta eta aipatu zitzaizen lehen eta inork ez du trabarik ipini. Joan den astean egin zen lekua aldatu eta banaketa-sistema berrantolatu ondoren lehendabiziko banaketa eta inork ez du trabarik ipini.

Alazne Lafragua Ureta: nik kontuan izan behar den gauza bat dela uste dudalako esaten dut, besterik gabe.

Inmaculada Vivanco Retes: bai, bai, eta kontuan izan dugu eta horretan pentsatu dugu. Oraintxe dauden erabiltzaileek ez dute inolako trabarik... ez dira desagertu, eta ez dute esan gaizki iruditzen zaienik eta ados ez daudenik, are gehiago nik uste dut Arteara arte ez joatea ongi iruditu zitzaieela.

Alazne Lafragua Ureta: bada agian pentsa daiteke, Arteara arte igo beharrik gabe, gutxiago ikusten den lekuren batean, ez dakit, ni haiengatik ari naiz pixka bat.

Inmaculada Vivanco Retes: nik hori esaten dizut, erabiltzaileen artetik, elikagaien bankuaren zerbitzua baliatzen dutenen artetik, ez da kexarik izan, eta lehendabiziko banaketa izan da. Baina kontuan izango diren gauzak dira arazorik balego.

Alazne Lafragua Ureta: nik uste dut arazo bat egon arretik egokiena litzatekeela, agian, ez dakit...

Inmaculada Vivanco Retes: momentuz ez da arazorik izan.



- Joseba Vivanco Retes: nik banituen pare bat kontu. Batek aurreko osoko bilkuran ere jorratu genuen gai batekin du zerikusia, Dehesako bidearen gaiarekin, Santa Koloman. Ez dut galdetuko aurten gauzatuko den ala ez...

Alkatea: bai, egin duguna zera izan da, mugaketa egin zuen enpresari, lan guztien aurrekontuan egin nituen eta. laz aurrekontu bat egin zuen, baina giltza eskuan egin dezala eskatu diot, izapide guztiak egin ditzala mugaketa eta egin beharreko lan guztiak behin betikoz amaitu arte, katastroak aldatzekoak...

Joseba Vivanco Retes: ez, nire galdera da ea erantzun zaion jadanik azaroaren 5ean gai horrekin lotuta idatzi bat sartu zuen pertsonari.

Alkatea: berarekin hitz egin dut, baina idatziz ez diogu erantzun. Berarekin hitz egin dut eta baietz esan diot, arrazoa duela, eta hori egin beharrean gaudela. 10-12 urte daramatza dagoeneko gai honekin, mugaketa eginda dago, mugarrizatzearen zati bat, eta mugaketa egin zuen enpresari giltza eskuan egiteko eskatu diot. Hori da onartu behar duzuen, hau da sinatu behar duzuen dokumentua, hau da erregistrora eraman behar den dokumentua, katastroa...

Joseba Vivanco Retes: bikain.

- Joseba Vivanco Retes: besteak joan den astean erregistratu genuen idatziarekin du zerikusia, non irudi bat ere gaineratu genuen zeraren irudiaren gaiarekin... Sotoko edukiontzien zonaldea nola zegoen, guztia kimaketarako materialez beteta, kimaketaren aztarnez. Astebete igaro da, eta hura ez dago zegoen bezala, askoz ere okerrago dago. Egia esan lotsagarria da gauza horiek han egotea. Ez dakit norena den bildu ez izanaren erantzukizuna, pentsatzen dut Kuadrillako zabor-bilketa zerbitzuarena izango dela. Ez dakit Udaletik telefonoz deitu zaion Kuadrillako teknikariari hura nola zegoen esateko, baina astebete beranduago hura askoz ere okerrago zegoen. Hori alde batetik.

Harritu egin naiz era berean, beheran galdetu dut, eta uste dut pertsona bat etorri dela kexatzera, harrigarria egiten zait zonalde horretatik guztitik pertsona gehiago ez direla etorri kexatzera, beraz iruditzen zait, ez administrazioetatik jendea hezten ari garela baizik eta lelotzen ari garela, izan ere, badirudi inor ez dela kexatzen baldin eta bere jabetzan gertatzen ez bada, guztion jabetzakoa baldin bada badirudi inori ez zaiola axola eta inor ez dator udaletxera kexatzera. Eta, era berean, arreta eman han kimaketa hori uzten ari den jendeari kimaketa hori han utzi behar ez dela ikusten ari denean. Edukiontzi marroia, hara bota behar baitira, beteta baldin badago, ezin duzu kanpoan metatzen jarraitu beteta dagoelako. Bada, edo beste edukiontzi batera joaten zara gainerakoek egiten duten bezala beste zabor baten edukiontzia beteta dagoenean, edo udaletxera joaten zara eta edukiontzia beteta dagoela adierazten duzu. Azken batean guztiok gogoak ematen diguna egiten dugu, eta han dugun irudi horrekin, ondoren kexuka etortzeko. Lehendabiziko bigarrenak, bada tira, bakoitzak erantzungo du, baina lehenengoa...

Alkatea: egia esatera edukiontzien lerro hori arazoa da. Horretaz aparte, edukiontziak espaloia erdian ere uzten dituzte. Beti ibili behar da kentzeko eta atzerago ipintzeko eskatzen. Behin eta berriz eskatu dugu hori ken dadila, eta esan digute larunbatean dena kendu eta antolatuko dutela. Eta, era berean, aztarna horiekin egin behar dena gogoraraziko dugu. Lehenik eta behin gomendioa, eta konpostaje-ikastaroak izan ditugu bakoitzak norberaren etxean konposta egin ahal dezan. Gero tamaina handikoak biltzeko bidean ipintzeko aukera ere hor dago, baina poltsa txiki itxietan aurkeztu behar da. Eta ondoren beste aukera, bada udalerrian hori egiten duen jendea, Garbigunera eramatea da. Horiek dira argibideak. Eta berriro diot, behin eta berriz, eta egia da zaborraren gaiarekin gizalegezkoak ez diren zenbait portaera ditugula, hori da bat, kimaketaren aztarnarekin gertatzen dena. Beste bat kanpoan uzten den zaborra da. Orain, badakigunean basura biltzeko zonaldeak at uzten dela, pertsona identifikatuta, edo hori utzi duten pertsonak identifikatzeko aukerarekin gogorarazteko gutuna igortzen dugu kaxen argazkiekin, eta egia esan hori ez da lagungarri gustatuko litzaigukeen udalerrien marrazki onena izateko. Nik uste dut guztion erantzukizuna dela, gutxienez, hori errespetatzea. Eta zentzu horretan nik ere eskaera bat egin nahiko nuke, eta kartelen gai horrekin lotutakoa da. Beno, kartel asko ere ipintzen dira, nik uste dut leku asko daudela gaituta kartelak ipintzeko eta hori ez da errespetatzen. Gainera kartelak ipin daitezkeen zonaldeak ez ezik, horma pribatuetan ere



ipintzen dira eta egia esatera ez du horrek irudi perfektua ematen. Nik uste dut hori ere guztion erantzukizuna dela, errespetatzea, eta kartelak ipini behar badira, kartel batzuk ditugu ipintzeko, eta hor ipin daitezke.

Joseba Vivanco Retes: lehendabizikoari buruz, erantzun bat izatea gustatuko litzaidake kimaketa horrek zergatik daraman hor bi aste, hiru aste, lau aste. Eta Kuadrillako garbiketazerbizua, duela hilabete hasi baita funtzionamenduan, eta ordaintzen ari gara, ez ote den etorri biltzera, ez ote duen biltzeko betebeharririk, ez ote duen biltzeko aukerarik. Eta ezin ahal dugun egin, gaur goizean batzordean EAJ taldeak beste gai batekin planteatzen zuen moduan, bildu ez dutenaren dirua ken dezagun eta hil honetan ordaindu behar dugun fakturatik apur bat kentzen diegu esateko "hurrengoan biltzera etorri kobratu nahi baldin baduzue". Ez dut ulertzen azken batean zein den arazoa, desdoikuntza ote den, edo zer den hor gertatzen dena.

Alkatea: ematen didaten azalpena da bolumen handi samarra dela eta haiek bildu dutela baina halere gehiago dagoela. Hori da eman didaten azalpena.

Joseba Vivanco Retes: noizbait etorri beharko da jakinez noiz den kimatzeko sasoa... izan ere, azken batean, Udaletik erabakitzen bada zerbitzu bat eman behar dela lorategiak dituen jendearentzat, kimatzen duenarentzat, teoriarik askok pentsa baitezakegu kimaketa hori hartu, eramaten dizun enpresa bat kontratatu eta ordaintzen baduzu, Udalak zerbitzu hori ipintzeko pausoa ematen badu, eta hori eramateko zerbitzu bat ipintzen bada, bietako bat, edo eraman egiten du, edo bestela atzera itzultzen gara eta bakoitzak bere kimaketa-bilketa ordain dezala eta kito.

Alkatea: hori hor uztea zaborra kanpoan uztea bezalaxe da. Berdin-berdin.

Joseba Vivanco Retes: ados, orduan gauza bera egingo dugu. Esango dugu, begira, jauna, edo pertsona, edo edukiontzien ondoan kimaketaren aztarna guztiak utzi dituen emakumea, ikusten bazaio, bada isuna ipintzen zaio. Gauza bera etorri eta hara obra bateko hondakin guztiak botatzen dituenarekin. Baina biltzeko zerbitzu bat ipini behar badugu, sortzen dela dakigun arazo bat dagoelarik, saia gaitezen bideratu eta irtenbide bat ematen, baina ondoren gu ez bagara gai irtenbide bat emateko arazo bera sortzen ari gara oso modu inozoan.

Joseba Elejalde Ribacoba: nik gai horri buruz sarritan hitz egin dut hemen. Uste dut hondakinen tratamendua oso tratamendu ezberdina izan behar dela. Ezin da edukiontzi marroira bota guztia mamua izango balitz bezala eta ematen diogun guztia irensteko gaitasuna izango balu bezala. Nik uste dut azken batean, sarritan hitz egin dut hemen, Udalak, urteko sasoi jakin batzuetan, udaberriaz ari gara hitz egiten jadanik, aurtengoan aurreratu egin da, izan ere, egiaz oso negu ezohikoa izaten ari gara, eta udazkena, edukiontziak ipini, edukiontzi pare bat ipini kimaketaren metaketa egiten den zonaldeetan. Eta hori izango litzateke modurik naturalena, azkarrena, lehendabizi, hondakin mota hori tratatu eta konposta egin behar den plantara eramanez, eta ondoren arazo hauek guztiak ekidin. Zer kostatzen zaigu Udalari? 350 euro, 250 euro edukiontzi bakoitza, edukiontzi bat. Bi edukiontzi, bada 500. Baina uste dut Josebak proposatu duena dela behingoz udaberriari begira, udazkenari begira, edo datorren urteari begira zer egin behar dugun erabakitzea. Ezin dugu urtero ibili osoko bilkuran honetan arazo hau eztabaidatzen. Erabakiren bat hartu beharko da. Ez bagara gai izan hondakinak biltzen dituzten enpresek denbora eta modu egokian egin dezaten, bada beste neurri batzuk hartu beharko ditugu. Eta ez da berria, hau ez da kontu berria, ez da aurtengo kontua. Ez da enpresa duela hilabete abiatu delako. Hau errepikatu egiten da, aurreko enpresari ere gertatzen zitzaion kimaketa hasten denean metatu egiten delako, guztiok batera kimatu behar dugulako bat-batean, guztiok gure lorategia moztu behar dugu. Eta azkenean egiten duguna bada errazena da, edukiontzia aldamenean ipintzea, edukiontzira botatzeak nekatu egiten gaituelako edo edukiontzia leporaino dagoelako. Orduan nik berriro hemen behin betikoz erabaki bat har dadila eskatzen dut eta kontrata dadila enpresa bat urtean bi edo lau edukiontzi ekarriko dituen kimaketak biltzeko metatzen diren lekuetan.

Alkatea: hori da arazoa dugun leku bakarra.

Joseba Elejalde Ribacoba: bada dagoen lekuan. Jauregian oso erraz dugu. Jauregira urtero hiru edukiontzi ekartzen dira, gutxienez. Jabedunek ordaintzen dituzte, hori estalita dugu. Baina gaitasun hori ez bagenu zuzenean botako genuke, orduan urbanizaziotik ez zen inor irtengo eta inor ez litzateke sartuko. Kolapsatuta egongo litzateke. Nik ez dakit zenbat kimaketa sor



dezakegun, bana urtean bizpahiru edukiontzi dira, eta hori pentsatzen dut Sotoan, sei bider handiagoa denez, bada orduan eta bermatuago dago azkenean puntua kolapsatuta izango dugula urtean x hilabetez.

Alkatea: bada, berriro diot, orain hiru bide daude, konposta, tamaina handikoen bilketa, edo Garbigunera eramatea.

Joseba Elejalde Ribacoba: baietz Iñigo, erabat ados, baina esan nahi dizut azken batean orain zerbitzua duen enpresak denbora eta modu egokian egin ezin baldin badu, bada agian erabaki egin beharko da, bietako bat, Josebak mahai gainean ipini duena, edo udaberri edo udazkenerako, kimaketa gehien eta hondakin gehien sortzen den sasoirako, edukiontzi bat ipintzea erabaki.

Alkatea: esaten dudana da badela konposta egiten duen jendea eta badela Garbigunera eramaten duen jendea. Jende asko dagoela, jende gehienak ongi egiten duela. Eta badira gaizki egiten duten batzuk. Kimaketa edo zaborren hondakinekin, eta batzuetan edukiontzien zonaldea zikinkeria hutsa da. Zergatik? ehunetik hiru pertsonak gaizki egiten dutelako.

Joseba Elejalde Ribacoba: hori gizalegean kontzientziatzea da. Hori gertatzen da guztia edukiontzi marroira botatzen duenarekin eta azkenean etxean birziklatu egiten duenarekin, eta guztia berdera, horira edo kartoira doa. Herenegun argazki bat zegoen, bi argazki, Artziniegako auzotar bat errepidetik kaxa osoak jasotzen, haizetarekin sakabanatuak, ez garelako gai, edo ez direlako gai izan horiek tolestu eta edukiontzi urdinean sartzeko. Kontzientziazio kontua da jadanik. Zuk arrazoia izateaz gainera, badela ongi egiten duenik, etxean konposta egiten duena, Garbigunera eramaten duena, egia dena da, Josebak adierazi duen moduan, bi astez, hiru astez, lau astez, hor kimaketaren hondakinak egon direla.

Alkatea: bada, badago jendea zabor-poltsa edukiontzian sartu ere egiten ez duena, e?

Joseba Elejalde Ribacoba: eta astelehenetan, behin baino gehiagotan esan dizut, jauregiko edukiontzien albotik igarotzen zara eta ikusten duzu etortzen diren autoak aparkatu, pentsatzen dut Burgoseko zonaldeetik etorriak, datozen lekutik datozela, aparkatu, beren zaborra bota eta alde egiten dute. Edo mahaitxo bat uzten dizute. Hori nik ikusi dut. Behin baino gehiagotan esan dizut. Eta ez dizut aipatuko Bentan geratzen direnen kontua, Bentan dagoen edukiontzian. Bentan dauden bi edukiontzietan, hor geratu egiten dira, gainera hor zabalera egokia dute geratzeko, eta zaborra botatzen dute. Barrura botatzen dute behinik behin.

Joseba Vivanco Retes: errepikatu berriz ere, gauza bakarra, jendeak duen portaeratik harago, guk Udal modura erabakitzen badugu kimaketaren hondakinekin sortzen den arazo horri irtenbide bat ipini behar diogula, lehendabiziko gauza erantzun hori eman ahal izatea da. Ezin badugu erantzunik eman, azken batean beste arazo bat sortzen ari gara. Larunbatean etorri eta biltzen baldin badute, edo bi txandetan biltzen baldin badute, bada ados, baina kontua da ez dadila errepikatu guztioi kimaketa egitea egokitzen zaigunean berriro.

Joseba Vivanco Retes: eta azken kontu bat. Horrekin du zerikusia, pozten naiz kartelen gaia atara duzulako. Galdetu nahi nizun ea kendu zenuen Bilduren kartel bat igerilekuen sarreratik aurreko egunean.

Alkatea: bai.

Joseba Vivanco Retes: Eta zertan oinarrituta?

Alkatea: lokalaren barruan zegoelako. Igerilekuen zonaldean zegoen, eta hori ez da kartel bat ipintzeko eremua.

Joseba Vivanco Retes: kontua da gustatuko litzaidakeela jakitea gai hori Udal honek onartutako zein ordenantzaren arabera arautzen den. Ordenantza guztiak begiratu eta bakar bat ere ez baitut topatu.

Alkatea: Ipintzen al dira kartelak eraikin publikoetan?

Joseba Vivanco Retes: ez, ez. Ea, ni esaten ari naiz...

Alkatea: esaten ari natzaizu, ipintzen al dira, bai ala ez?

Joseba Vivanco Retes: Iñigo, gauza bat galdetzen ari natzaizu. Zertan oinarrituta, Alkate modura joan eta kartel bat kendu duzu, zein ordenantzatan oinarrituta?

Alkatea: oinarritzat hartuta eraikin publiko batean, igerilekuak hala baitira, ezin direla ipini.

Joseba Vivanco Retes: Zein ordenantzan oinarrituta, Iñigo?



Alkatea: ez zuk, zertan oinarrituta ipini duzu?

Joseba Vivanco Retes: bada han dauden gainerako kartel guztiak ipintzen diren bezalaxe. Kendu dituzu gainerako kartelak?

Alkatea: ez, hori, besteetan ez nuen erreparatu.

Joseba Vivanco Retes: aizu, nahi baduzu esango dut "ez dago galdera gehiago..."

Alkatea: eta bide batez, Joseba, nik eskertuko nizuke, heziketa aipatu dugunez, kontzientziarioa, kartelak ipintzeko lekuak errespetatuko bazenituzte. Hori da bat, ondoren gero ipini egiten dira, eta adibidez badugu bat gimnasioaren atean, EH-Bilduko hautagaiaren aurkezpenekoa, otsailaren 1ekoa, hilabete baino gehiago darama hor.

Joseba Vivanco Retes: Eta ikusteak amorratu egiten du?

Alkatea: ez, ez. Kontua ez da ikusteak amorruta sortzea.

Joseba Vivanco Retes: uste nuen horregatik zela.

Alkatea: kontua ez da ikusteak amorruta sortzen duen, hemen begirunea eskatzen badugu, hala jokatzera da kontua.

Joseba Vivanco Retes: gero hitz egingo dugu hezieraz. Orain erantzun egin dizudan galderari. Osoko bilkura honetan onartutako zein udal ordenantza erabiltzen duzu oinarritzat jo eta kartel bat kentzeko, zuk Alkate modura? Esan zein ordenantza.

Alkatea: eraikin publiko batean ezin delako kartelik egon.

Joseba Vivanco Retes: beraz, lehen Bilduren kartelak kentzen zizkigutenean hor nonbait, eta esaten genuenean "edo haizea izan da, edo hurrak izan dira", orain esango dugu "edo haizea izan da, edo hurrak izan dira, edo Alkatea izan da".

Alkatea: igerilekuen kasuan ni izan naiz.

Joseba Vivanco Retes: bai, bai. Orain gauza bera pentsatuko dugu ordea.

Alkatea: bai, bai.

Joseba Vivanco Retes: hau da, zuk erabakitzen duzu zein kartel kendu behar dituzun...

Alkatea: gainera barruan zegoen, barrutik sartuta zegoen.

Joseba Vivanco Retes: baina baietz, baina zertan oinarrituta. Zein ordenantza?

Alkatea: esan dizut eraikin publiko batean ez dela kartelik ipini behar.

Joseba Vivanco Retes: erakutsi zein ordenantzatan ipintzen duen "udalerrri honetako publizitate edo kartelak arautzeko eta abar eta abar" eta arrazoiak emango dizut, eta ez dugu berriro ipiniko, eta guk kenduko dugu. Baina esan zein ordenantzatan, ez naiz beste munduko ezer eskatzen ari.

Alkatea: esan zein ordenantzatan topatzen dituzun zuk argudioak ipintzeko.

Joseba Vivanco Retes: aizu, lñigo, galdera ni ai naiz egiten. Erantzun eta gero nahi baldin baduzu besteaz hitz egingo dugu.

Alkatea: esan dizut eraikin publiko bat dela, eta eraikin publiko batean ez dela kartelik ipini behar. Eta kito.

Joseba Vivanco Retes: Pilotalekuan ipin daitezke?

Alkatea: eraikin publiko bat da.

Joseba Vivanco Retes: horman ipin daitezke, bai ala ez?

Alkatea: ez

Joseba Vivanco Retes: Orduan zergatik ez dituzu kentzen hortik ipintzen dituztenak?

Alkatea: ez dira ipintzen.

Joseba Vivanco Retes: Zergatik ez dituzu kentzen hor ipintzen direnak eta hain justu hori kentzen duzu?

Alkatea: bada, kenduko ditugu denak.

Joseba Vivanco Retes: Edo ez al zenuen kendu gimnasiokoa edo okindegikoa han ipinitakoak? Orain jaitsiko gara zer dagoen ikustera.

Alkatea: kenduko ditugu denak.

Joseba Vivanco Retes: ah, oraindik aurrera izan da. Ez, ez. Eta, bide batez, ipintzeko lekuen kontua. Urteak daramatzagu udaletxe honetan eskatuz informazio-panel gehiago ipin daitezela. Gogorarazi nahi dut kaleak egin zirenean, Beraza aldapan zegoena kendu egin zela, eta ez zen berriro ipini. Kartel bat zegoen, Udalarena ez zena, baina jende orok baliatzen zuen eta Batzokiaren parean zegoena zen. Kendu egin zen eta desagertu. Hots, denbora asko daramagu



gu esaten, eta aurrekonturen batean ere sartu dugu, gogoan dudanez, herrian panel gehiago ipini behar zirela esanez, Barrenkalen, Artekalen, leku gehiagotan. Jaramon egin al duzue? Batere ez.

Alkatea: ez dago kartelak ipintzeko nahikoa panel.

Joseba Vivanco Retes: tira, esango didazu.

Alkatea: eta horregatik ipintzen dira gimnasioko atean.

Alazne Lafragua Ureta: edozein modutan, honi dagokionez, ez naiz eztabaidan sartuko, baina egia da esaten ari zarela kartelak ipini behar diren lekuak daudela. Bai, baina Artziniegako EAJ taldeak ere ipini ditu kartelak ipini behar ez ziren lekuetan. Eta nik ikusi dut hori. Eta kasu batekin argi oroitzen naiz niri egokitu baitzitzaidan pertsonalki, eta nahi baduzu aterako dizut. Baina ipini dira hortik ere. Oso ongi iruditzen zait zenbait kontu eskatzea, baina barrurantz begiratzea ere ongi legoke.

Alkatea: egia. Baina zehazki EH-Bildu taldearen batek hilabete baino gehiago darama ipinita gimnasioaren atean.

Alazne Lafragua Ureta: baietz, oso ongi iruditzen zaidala, baina orduan EAJ taldearenak ere erreklama daitezke.

Joseba Vivanco Retes: eta itxaron atzetik datorrenari.

Alkatea: orduan esan dezagun zaindu egin behar dela, gauza batzuen kasuan bai, beste kasu batzuen kasuan badirudi ezetz.

Alazne Lafragua Ureta: guztiok zaintzen dugu.

Joseba Vivanco Retes: bide batez, gustatuko litzaidake izan bazina duela 15 urte izan zen korporazioan, 2005. urtean uste dut, EAJ taldeak bando bat atera zuenean Egi Eguna Artziniegako kiroldegian egingo zela iragarri. Hura bai izan zela... Egon izan bazina, ziur bando hura ez zela aterako.

Alkatea: Besterik?

Joseba Vivanco Retes: besterik ez. Hurrengo osoko bilkuran galdetuko dut ordenantza ospetsuaren inguruan, ea ateratzen den.

- Joseba Elejalde Ribacoba: nik hasteko jakin nahi nuen zein egoeratan dagoen Antonio Garcian partzelako uraren kanalizaziorako obra. Pentsatzen dut langileen zain jarraituko dugula, baina tira, joan den hilean galdetu nizun gauza bat denez eta horren zain zegoela esan zenidanez, berriro galdetzen dizut. Hiru urte eta erdi dira.

Alkatea: ezin dizut esan egikaritatea dagoenik.

- Joseba Elejalde Ribacoba: bigarrena da bere garaian pasabide kanadar bat ipini behar zela Erretatik Peñalbarak pistan, eta azkenean hori ezin izan zen egikaritu pista hori pribatua delako, baina hona badakarkit proposamen bat, hots, udaletxearena den zatian, hormigoizko pistak eta basoko pistak bat egiten duten gunean, hor bai ipin daiteke pasabide kanadar bat mendiko azienda guztia ez dadin, eta mendikoa diot azken batean animaliak pasatzen direlako oraindik zonalde pribatuetara, errepideraino iristea ekiditeko. Bada ipintzea aurreikusten zen zonaldean ipini ezin denez, bada basozainak egin dezala txosten bat, aztertu eta azterlan bat egin dadila, pasabide kanadar hori udaletxearena den pistan ipin daitekeen ala ez esanez, eta esan dudan moduan, hormigoizko pistak eta basoko pistak bat egiten duten gunea baita, jadanik harrizko pista da hori.

Alkatea: oraintxe bertan epe barruan gaude. Aurkeztu ziren proposamenak begiratuko ditugu eta...

Joseba Elejalde Ribacoba: ondoren, gai horri berari buruz, hura azpimarratuz, ondoren Peñalbara doan udaletxearen pista dugu. Kilometro bateko tartea dugu, gutxi gorabehera. Ondoren beste kilometro eta erdi dugu pribatua dena, eta ondoren beste kilometro eta erdi udaletxearena dena. Hori sekula santan ez da konpondu, egin zenetik. Arekarik ez dago, ura pistaren erditik jaisten da. Zenbait egunetan uretarako botarekin ez da aski estaltzeko, mundu guztiak ibiltzen duen pista bat da. Kobratzen ari gara, hemen Alkatetzaren dekretu batean adierazten denez, Vodafone eta Movistarri, igo eta jaisteko kanon bat. Ahal den eran igo eta jaisten dira, ehiztariei ere bai gauza beragatik. Nik Udal honi eskatzen diot, behingoz, udal bideak



nola konponduko dituen pentsa dezala. Zein modu eta eratan. Auzokako plangintza bat, premiaren arabera, ez dakit. Baina uste dut kontu hau seriotasunez hartu behar dela jadanik, izan ere, Erretatik igotzea, edo Erretara igotzen den errepidetik, Peñalbara arte, ibilgailu arrunt batean ikaragarria da. Gai horren inguruko azterketa bat egitea ere eskatzen dut.

- Joseba Elejalde Ribacoba: ondoren, ez dizut berriro galdetuko, edo bai, Elejalde sendiarekin bilkura bat egingo ote duzun Peñalbara igotzen den pistaren kontuarekin, izan ere, gogoan dut joan den urteko ekainean izan zela, joan den hilean errepikatu nizun, izan genuen azken osoko bilkuran errepikatu nizun, eta noski. Nik jakin nahi dut itxi dezakedan ala ez. Edo Elejalde sendiarekin bilkura bat izan nahi duzun, edo izan nahi ez duzun, adostasun batera iritsi eta kontu hori ebazteko. Eta alde bakoitzak zer egin behar dugun ikusi, Udalak bere aldetik, eta Elejalde Ribacoba sendiak beste alde gisa.

Alkatea: ondoren bidearen aitortzaren kontua ere hor dugu.

Joseba Elejalde Ribacoba: hori beste gauza bat da. Bidearen aitortzarena ezinbesteko kontu bat da. Bidea konpontzea, behin aitortuta, ez dakit zenbat hilabete beharko diren eta zenbat diru suposatuko duen, eta udalerrri honetan lanak zer-nola garatzen diren ikusita, guztiak beste administrazio batzuetatik etorritako diruarekin egikatzten baitira, egikaritu ahal izateko, egin ahal izateko, bada 2060. urtean ikusten dut bide hori egin gabe egongo dela. Irtenbide bakarra, bideragarriena, eta gainera Ascenek aipatzen zuena aurreko egunean "zertarako aitortu behar dugu ezertarako zerbitzurik emango ez digun bidea bat". Eta nik esan nion "ez, bide hori aitortu egin behar da bide publiko bat delako, eta bide publiko bat aitortuta egon behar da". Beste kontu bat da gaur egun hari zerbitzurik ez ematea, itxita dagoelako, estua delako, edo konpontzea eman diezaguken zerbitzua baino garestiago izan daitekeelako. Eta beste kontu ezberdin bat da une honetan basoko pista bat dagoela, Erretatik Peñalbara zerbitzu hori eman dezakeena, eta une honetan zerbitzua ematen ari dena. Eta nik beste behin eskatzen dizut bilkura bat egin dezazula Elejalde Ribacoba sendiarekin, guztiengan eragina duen arazo hori zein modutan eta zein eratan ebazti daitekeen ikusteko.

- Joseba Elejalde Ribacoba: ondoren, Garay sendiaren gaiarekin, Ayalako etxearen aldameneko eraikina dohaintzan emateko proposamenarekin, badago berririk?

Alkatea: ez. Hasieran egon zen harreman hartatik harago, eta Udalak erakutsi zuen interesetik harago, ondoren gero ez dugu ezer hitz egin.

Joseba Elejalde Ribacoba: beno, nik dagoeneko amaitzeko, Artea Etnografia Elkarteari eskerrak eman nahi dizkizuet azken 40 urtetan modu altruistan egindako lanagatik, eta azken urte honetan dagoeneko... ez dut hitzik, baina berezia. Zuen eginahalari eta lan irmoari esker museoak hor egoten jarraitzen duela esan dezakegu, orduan, mila esker museoari egindako lan honegatik guztiagatik, eta azken urte honetan egindakoagatik.

Eta jorrazteko beste gairik gabe, amaitutzat eman zen saioa, lehenago aipatu egunaren zortziak eta berrogeita bost minututan. Eta guztiorren gainean, fede ematen dut.